

GUaixe.eus



Fernando Urrea
Los Arcosen
lehenengoa



Kirolak >> 12

Benignoren omenaldiko bazkarirako txartelak larunbatean jasoko dituzte. Apirilaren 16rako egun osoko egitaraua antolatu dute, auzolanean



Sakanerria >> 7

Mank-ek aurrekontua onartu du

>> 3



Erasmus programaren bidez Portugalen ikasten egon dira Alex Salgado, Ruben Barroso, Jon Galartza eta Jon Fernandez.

Patxi Arratibel
ostegunean
epaitegira



>> 8

10. aldiz,
Irakurri,
Gozatu eta
Oparitu >> 15

Irurtzango
parte hartze
aurrekontuak,
bozka garaia >> 9

Haize Berriak
bandaren
konzertu
berria >> 14

Lanbide Heziketatik Portugalera, Erasmus

>> 7

Bihar, 23:00etatik aurrera

DJ BARBAN ZUZENEAN!

IRATXO TABERNA

KUBATAK: 3,5 €
TXUPITOKAK: 1€

ETXARRI ARANATZ

decoraciones

zuntaipe

Javier Malo Azpiroz
699 938 342

Zure ideiak margotzen ditugu
Aurrekontua eskatu konpromezurik gabe

DISEINATZAILE LANPOSTUA

Guaxe Fundazioak diseinatzailea behar du

Eskatzen da:

- Diseinu eta maketazio programen ezagutza.
- Antzeko lanetan eskarmentua izatea.
- EGA edo baliokidea den gutxieneko euskara maila.
- Erredakzio - kazetaritza ezagutzak baloratuko dira.
- Gidabaimena eta autoa izatea.

Lanaldi osoko lan kontratua eskaintzen da.

Interesa duenak bidali CVA fundazioa@guaixe.eus posta elektronikora. DISEINU-2016 erreferentzia zehaztuz, apirilaren 15a baino lehen.

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovennavarra.com
www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



Garazi Garasa Guerrero
ZORIONAK politt hori! Munduko muxu guztiak zuretzat. Izeba Maria Josefa.

Garazi Garasa Guerrero
ZORIONAK printzesa! Zure falta sentitzen dugu. Egun handira arte, maitea. Manoli eta Joseba.



Iker
ZORIONAK Iker!! Gure etxeko mutilak 10 urte bete ditu!! Muxu handi bat Urdiaingo familiaren partez.

Aner
ZORIONAK Aner! 7 urte dagoeneko! etxeko txikia handitzen ari zai-gula! Muxu pilo bat etxekoaren partez. Asko maite zaitugu.

Bazkideek deskontua

Bakarra: **4,00€**

Bazkideak: **3,50€**

apribilak

8-14

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Musika

4nek. Apirilaren 8an, ostiralean, 22:30ean Olatzagutiako Barandi tabernan.

Maite Itoiz eta John Kelly. Apirilaren 9an, larunbatean, 19:00etan Arbizuko kanpineko Amari yoga magiko gunean.

Ocho apellidos falsos. Apirilaren 9an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Haize Berriak** banda.

Brigada Improductiva, Alerta Gorria, Sofokaos, Desperdizio eta Dj Jo ta Txo. Apirilaren 9an, larunbatean, 22:00etan Irurtzungo barazki gunean.

Antzerkia

Superheroiak. Apirilaren 10ean, domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **El perro azul teatro.**

Zinema

Amama. Apirilaren 8an, ostiralean, 20:00etan eta apirilaren 10ean, igandean, 20:00etan Irurtzungo kultur etxean.

Mia madre. Apirilaren 8an, ostiralean, 21:45ean eta apirilaren 10ean, domekan, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Motxila 21. Apirilaren 8an, ostiralean, 22:00etan eta apirilaren 10ean, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

Del revés (Inside out). Apirilaren 10ean, igandean, 18:00etan Irurtzungo kultur etxean.

Mendi irteerak

Albi-Hirumugarrieta-Albi. Apirilaren 10ean, igandean, 8:00etan Irurtzungo Iratxo elkarteko mendi taldea.



4nek taldeak gaur kontzertua eskainiko du Olatzagutiko Barandi tabernan.

Bizikleta irteerak

Altsasu-Muskiz-Altsasu. Apirilaren 9an, larunbatean, 9:30ean Altsasuko Baratzeko bide plazako lokomotoratik. Zikloturista taldea. **89 km.**

Altsasu-Urretxu. Apirilaren 10ean, domekan, 8:30ean Altsasuko Barranka txirindulari taldeko mendi bizikleta taldearen bajeeratik. **40 km.**

Erakusketak

Conocer Navarra. Apirilaren 10era arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur guneko ezkaratzean.

Eszenaratzea eta ukituak ematea. Apirilaren 18ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean.

Hitzaldiak

Giza eskubideak urratzea Europan. Iheslarien krisia. Apirilaren 8an,

ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxea eraikineko 2. gelan. **Hizlaria: Ione Belarra, Ahal Duguren kongresuko parlamentaria.**

Pintura

Mural margotzea. Apirilaren 9an eta 10ean, larunbatean eta domekan, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean. **Itziar Nazabalekin.**

Tailerrak

Hatha vinyasa. Apirilaren 9an, larunbatean, 10:00etatik 12:00etara Arbizuko kanpineko Amari yoga magiko gunean. **Omar Carabia.**

Bestelakoak

Sakanako D ereduko eskola publikoaren festaren aurkezpena. Apirilaren 8an, ostiralean, 19:30ean Irurtzungo kultur etxean.

Zehazten, topaketa Irekiak. Apirilaren 8an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxea eraikinean eta apirilaren 9an, larunbatean, 10:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean. **EH Bildu.**

Larrazpiko eguna. Apirilaren 9an, larunbatean, 13:00etatik aurrera Irurtzunen.

Gestos jolasa. Apirilaren 9an, larunbatean, 21:15ean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Deialdiak

Altsasuko euskalkia berreskuratzen. Apirilaren 8an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Altsasuko euskalkia berreskuratzen. Apirilaren 8an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Apirilaren 8an, ostiralean, 20:00etan Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Apirilaren 10ean, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Ostiralero
SAIOA
9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astehenetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara



Gaurko gaiak:

- Motxila 21, dokumentalaz
- Patxi Arratibel, epaiketaz
- Astelehen Zoriontsuak ekimena

107.3 FM
beleixe
www.guaixe.eus-en ON LINE

LAKUNTZAN EUROPAKO BANDERARIK EZ: Lakuntzako Udalak Europako bandera udaletxetik kentzea erabaki du. Neurri horrekin Europako Batasunak migratzaileen kontura hartutako neurriak salatu ditu.

ezkaatza >>

SAKANA

Mank-ek 3,67 milioi euroko aurrekontua onartu du

Sakanako Mankomunitateak 3.673.181,7 euroko aurrekontua onartu zuen martxoaren 23an. Mank-eko presidentea Aitor Karasatorre Muguruzak azaldu digunez, aurrekontuak onartzerakoan kontutan izan dituzten irizpideak izan dira: "murrizketak saihestea, zerbitzuak mantentzea eta inbertsio berri gutxi batzuk gehitzea".

Inbertsio nagusienak ureta hondakinaren zerbitzuetan egingen ditu Mank-ek. Hala, Ur Zerbitzuaren bidez, biltegiatarainoko ur sareetan lanak eta ur biltegiatan lanak egingen ditu Mank-ek (50.000 euro). Zerbitzu horrendako auto berria erosiko du ere (10.000 euro). Hondakin Zerbitzuaren inbertsioetan jasoak daude Altsasuko edukiontzi zaharrak ordezkatzeko berriak erostea (12.000 euro) eta Olatzagutian suaktxikitu zuen emergentzia gunea berritzea (7.000 euro). Bestalde, lising edo renting bidez kamioia eskuratuko du (18.000 euro).

Gehiago

Horiek dira Mank-en aurrekon-

tuan jaso diren inbertsioak, baina gehiago ere izan daitezke. Arbizuko hondakindegian egungo hondakindegia itxi, lixibiatuak jasotzeko gunea iragazgaitz bihurtzea eta likido horiek Arbizu-Lakuntzako araztegraino eramatea litzateke asmoa. Baita industria hondakin lituzkeen beste gune bat prestatzea. Azken horrek Sakanako enpresei zortzi urteko zerbitzua emanen lioke. Hondakindegia ixteko proiektua 2010ean aurkeztu zen, baina finantza krisiaren eraginez Nafarroako Gobernuak finantziarioa moztu zuen. Karasatorrek udarako gobernuaren erantzuna espero du. Lanek milioi batetik gorako inbertsioa eskatzen dute.

Nafarroako Hondakin Partzuergoak, bestalde, Arbizuko hondakindegian konpost planta bat egiteko 175.000 euroko inbertsioa aurreikusiko du. Bestalde, Partzuergo beretik diru gehiago jaso dezaake Mank-ek. Sakanan bertan konpostaren bidez hondakinak kudeatzen direnez, ibarrak errefusa



Aitor Karasatorre Mank-eko presidentea azalpenak ematen, Mank-eko aurreko batzar batean.

Enplegu tailerra

Mank-ek enplegu tailerra egiteko Nafarroako Gobernuari dirulaguntza eskaera egin dio eta erantzunaren zain dago. Ibarreko erakundeak hiri eta industria hondakin kudeaketa integratzen duen urtean. Mank-en, aurten ere, beste 15 sakandar arlo horretan trebatzea nahi lukete. Aurretik, 2011n eta 2012an, baso lanetarako enplegu tailerak egin ziren.

gutxiago sortzen du eta, horregatik, diru konpentsazioa jasoko luke. Hala bada, diru hori Hondakin Zerbitzuko inbertsioetara erabiliko litzateke.

Zerbitzuen aurrekontua

Ur Zerbitzua	809.835
Zahar-beritze Zerbitzua	90.300
Kirol Zerbitzua	132.056
Euskara Zerbitzua	364.000
Zabor Zerbitzua	1.562.420,70
Zerbitzu Orokorrak	437.175
Migrazio eta Aniztasun Zerbitzua	45.000
Garapen Agentzia	90.000
Enplegu tailerra eta beste	142.395

batzorde batekin bildu da eta zein neurri hartu adostuko dituzte. 2013an hainbat altsasuarrek auzo-konposta egiteko nahia adierazi zioten Mank-i eta joan den urtean erakundeak bi auzo-konpostagailu jarri zituen, oraindik erabili ez direnak. Bestetik, partzuergotik konpentsazio moduan jasotzen den diruarekin Mank-ek Irurtzunen beste neurri batzuk ere hartuko lituzke, beti ere, Irurtzungo Udalarekin adostuta.

Irurtzun eta Altsasu

Bi herrietako hondakin bilketa tasak hobetzeko Mank udalekin harremanetan dago. Aste honetan bertan Altsasuko Udaleko



El Martinet eskola publikoa ezagutzera joandako hainbat sakandar. UTZITAKOIA

Dumasek epizentroan: El Martinenen bisitan

Bartzelonako Ripollet herriko El Martinet eskola publikoa 78 sakandarrek ezagutu zuten larunbatean. Ikastetxe horretan haurtzarok berezko kultura duela aitortzeko abiatu dira. Hala, alaitasunari eta ongizateari lotuta dagoen ikasketen haurrak erabateko protagonistak dira. Hala, haurren nahia

errespetatzen da; ez dago ez libururik, ez klaserik, ez irakasleen txaparik, ez zigorrik ezta etxekolanik ere eta haurrek nahi duten tokian egoteko aukera dute.

Esperientzia horretan oinarrituta Sakanako Eskola Txikiak (Uhartea Arakil, Arbizu, Iturmendin, Urdiain eta Olatzagutia) Dumas proiektua gauzatu dute. Heldu den

ikasturtean Arbizuko herri eskolan indarrean jarriko da eta pixkanaka beste eskoletara zabalduko da. Lierni Galarragak, Sakanako Eskola Txikien koordinatzaileak esan digunez, larunbateko bisita "esperientzia bikaina" izan da eta "Arbizun martxan jartzen ari diren Dumas proiekturako pizgarria".

SAKANAKO XXVII. IBILALDIA
2016ko APIRILAREN 30a

IBILBIDE LUZEA: IRTEERA: 06:00
54 Km. - 3.388 mko desnibela

IBILBIDE MOTZA: IRTEERA: 07:30
27,5 Km. - 1.344 mko desnibela

IBILBIDE TXIKIA: IRTEERA: 09:30
14 Km. - 736 mko desnibela
Izena emateko iratxomendi@gmail.com
Ordaindu 4€ egunean bertan

Izenak ematea martxoaren 20tik apirilaren 27ra arte gure web orrian eta ibilbidearen egunean.

www.iratxoelkartea.com • iratxomendi@gmail.com



Raf Atxuri

Katalina Eleizegi

astekoa

Emakumeek historia ofizialean barrena pairatu duten ikustezintasun eta bazterkeria aipatzen dira martxoaren 8a egun seina-learen kariatara. Hypatia, Mary Shelley (Frankensteinen egilea) edo Ada Byronen kasuak ezagutu ditugu azken hamarkadetan. Geroztik ahazturaren kutxa erraldoi hartatik beste hainbat izen eta

izan ateratzen ari dira plazara.

Euskal bazterretan ere halatsu, artxibo eta idazkien txoko ezkutueta zeuden emakume sortzaile zenbaiten berri izan dugu. Esate baterako Hondarribian Joxepa izeneko (deitura eta bestelako datu-rik ez dakigu) bertsolari bikain bat izan zen XIX. mendean.

Garai hartakoa dugu 1889an

Donostian sortuzen Katalina Eleizegi antzerki egilea. Euskal antzerki idatziaren hastapenak aipatzean Soroa, Altxaga edota Labaien gizonen izenak azaltzen badira ere, Tene Mujika edo Katalina Eleizegi bertan zirela gogoratu beharko genuke. Katalina Eleizegi 1915ean antzerki lanak idazte-ari lotuz itzaitzaion eta Garbiñe, Lore-

ti, Jatsu eta Erausoeko Katalin lanak ondu zituen. Lehendabiziko hirurak argitaratuak eta arrakastaz izan ziren antzeztuak, sariak ere eskuratu zituela. Toribio Altxagak berak haren obraren kalitatea gorai patuzuen: "goi goitik dabilen antzerki lana osotu digu". Ikusleen eta kritikaren oniritzia jaso zuen idazle donostiar

honek XX. mendearen hirugarren hamarkadan.

Gorputz osasun ahulekoa izaki, azken 26 urteak Lizarran egin zituen eta 1963an zendu zen Ega ondokohirian. Donostian karrika bat haren omenez izendatu zuten. Ez litzateke lantegi txarra (ezta makala ere) haren antzerki lanen bat oholtzara eramatea berriz.

barrutik kanpora

Etxerat, hamabost urteko ibilbidea

15 urte luzeren ondoren, denak berdin jarraitzen duela esan genezake. Baina ez litzateke errealitatearekin bat etorriko, eta horrela jaso dugu urteko balantzean. Gure egoera berdina da, hori egia da. Guretzat ez da ezer aldatu, ez duela 15 urtetik, ez duela bost urtetik. Urteen poderioz, bere karga biderkatzen duten salbuespeneko kartzela politika baten ondorio fisiko, psikiko eta ekonomikoak helburua izaten jarraitzen dugu.

Eta beste behin esango dugu: ondorioak lazarriak dira. Bada-

kigu, bestela ere, egungo kartzela politikaren defendatzaileen geldialdiak ez duela bere amaiera erraz jarriko, dituen ondorioak dituela ere, edo bereziki horregatik. Baina gainontzeko euskal gizartea bezala, pertsona guztien giza eskubideen errespetua defendatzen duten indar politikoen borondate eta agendan, dispersioaren arbuioak espazioa berreskuratzera igarodela ohar-tu gara.

Onartzen dugun ardura ariketa bat ere bada: dispersioaren amaiera exijitzen dugu euskal

preso politikoen senide eta lagun gisa; dispersioaren amaiera exijitzen dugu bere ondorioak pairatzen ditugun pertsona gisa; eta dispersioaren amaiera exijitzen dugu bake eszenatoki bat izateko euren eskubidea erreklamatzeko duten herritar gisa.

Datozen hilabeteetan, gure lana alde batetik, senideei eta lagunei zuzendua izango da. Gure esku dagoen guztia egingo dugu zailtasunengatik edo denon artean konpondu ditzakegun arazoak medio, vis a vis bat edo bisita bat inork galdu ez dezan. Ezartzen

dizkiguten egun eta ordutegietan bidaiatzeko zailtasunak asko dira, eta gure aukerak murrizak, baina elkartasunean eta denon artean zailtasun hauek gainditzeko osatu dezakegun sarean konfiantza jarria dugu. Eta beste behin gogorarazten dugu: bidaiatzeko erabakia gurea da, erantzukizuna ez, ordea.

Bestetik, gizartea informatzen jarraituko dugu giza eskubideen urraketen berri emanez, hauek salatuz eta eragile eta organismoekin lan eginez, bai nazio mailan bai nazioartekoan. Zentzu horre-

tan, gure esku dauden komunikazio kanal guztiak irekiak izango ditugu: ez gara gu izango atak ixten dituztenak.

Amaitzeko, dispersio politikak sortu eta sortzen jarraitzen duen sufrimenduaren aitortza aldarrikatzen jarraituko dugu, eta bereziki, hildako 16 biktimena. Arrisku bat hartuzera derrigorituak izan ziren hamasei pertsona. Egia, justizia eta oroimenaren bidean, haien izenak eta egoera aldarrikatu behar ditugu.

Etxerat

gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

guztiak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esaneren eta iritzien

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foru plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

Deiadarra

Joseba Beltza Bengoetxea, Joxe ta Xafan aske! Ekimenaren izenean

Datorren ostegunean, apirilak 14, hasiko da Xafan eta beste lau euskal herritarren aurkako epaiketa. Maiatzaren 17an hasiko da Joxe eta beste zortzi lagunen kontrakoa. Era berean, apirilaren 22an, Ekaitz iturmendiara ere epaitzera doaz.

Azken hamarkadetan milaka izan dira epaitegi ezberdinetan epaitu dituzten euskal herritar-rrak, Espainiako zein Frantzia-

ko estatuek errepresioaren aldeko hautua egin dutelako; Euskal Herriaren aitortza egin eta, ondorioz, autodeterminazio eskubidea onartu baino, nahiago izan dutelako beren botere legegile, judicial eta betearazle osoa erabili aldarrikapen horien alde saiatu direnen aurka.

Legeak bihurritu dituzte, epaiketak nolana burutu eta guztia bortizkeriaz betearazi. Beren legeek egiten uzten ez zieten ere egin dute. Denak balio izan du eta balio du. Baita beste maila batzuetako erabakiei ezikusiarena egiteak ere.

Nazio Batuen Erakundeak onartutako "Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Hitzarmenean" jasotzen diren adierazpen askatasuna, elkartzeko askatasuna, biltzeko askatasuna, adierazpen politikoetan parte hartzeko askatasuna... izanen dira datozen asteetan burutzera doazen epaiketetako akusazioak; bildu izana edo adierazpen politikoetan parte hartu izana baitira Xafan, Joxe eta Ekaitzi, nahiz gainerako lagunei, leporatzen zaizkien "delituak".

Eta akusazio horietarako frogak, Xafan eta Joxeren kasuetan

gainera, tortura bidez lorturikoak izanen dira. Eskubide zibil eta politikoen nazioarteko hitzarmenak arbuizatzen duen torturaz lorturikoak.

Horregatik dabil azken aste hauetan (eta ibiliko da hurrengoetan) deiadarra Sakanan zehar; epaiketak ez burutzeko, egiten ari badira bertan behera uzteko, eta egin badira epaiak absolutzioa izateko, eskatzen.

Parte har dezagun ekimenean: atera dezagun argazkia adarreakin, zapiarekin; joan gaitzen apirilaren 23an Etxarrin ospatuko den Elkartasun Eguna eta eta

Zuzenketa

Aurreko zenbakian birziklatze tasaren datu ezberdina eman genuen azalean eta 9. orrian. 2015eko birziklatze tasaren datu zuzena azalekoa da, %51,46.

epaiketa politikoen kontrako manifestazioan partaide izan; ez diezaiegun utzi gure herrikideak epai ditzaten.

Besarkada bana Joxe, Xafan eta Ekaitzi, baita auzipetuta dauden Ruben, Adur, Edurne, Fran eta Asier sakandarrei ere!

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano,

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza, Larraitz Amadoz Lazkano eta Erkuden Ruiz Barroso

ZUZENTZAILEA: Miren Alonso

ARGITARATZAILEA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675

KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus

DISEINU ZERBITZUA: Guaixe komunikazioa • Ainhoa Etxeberria Pikabea • gk@gkomunikazioa.eus

ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.eus

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995

TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikako Salburuordetza

EUROPAKO ARTISAU EGUNA BRUNDA-RRENEAN: Europako Artisan Eguna zela eta larunbatean Brun forjak ate irekien jardunaldia egin zuen. Artisan familiak

forjaren interpretazio gunerako doako bisita gidatuak egin zituen larunbata arratsaldean.

sakanerria >>

SAKANA

Sakanako Industrialdeen Inbentarioa indarrean da

Sakanako Industrialdeen Inbentarioko datuak aplikazio informatiko batean jaso dituzte eta hura udalen esku dago. Lan horretarako Nasuinsa enpresa publikoak Nafarroako Ekonomia Jardueraren Katalogorako sarbidea erraztu du

Sakanako Garapen Agentziak (SGA) Sakanako Plan Estrategikoan jasota dagoen Sakanako Industrialdeen Inbentarioa sortu du. Inbentariok bi ondorio utzi ditu agerian. Batetik, industrialdeen gabezia nagusiak zein diren identifikatu dira: telekomunikazio sare falta, presio ertaineko gas horniduraren egoera, argindar horniduran arazoak eta kalitatea, argiztatzeko falta, zoru hondatuak, saneamendu sarean arazoak edo enpresen jardura lizentzien kontrolari buruzko zailtasunak. Horiek zuzentzeko neurriak hartuko dituzte udalek aurrerantzean.

Bestetik, egindako lanak agerian utzi ditu Sakanan saltzeko edo



Sakanako Industrialdeen Inbentarioren aurkezpena martxoaren 30ean egin zuten.

alokatzeko dauden industria eremuak: hamar herrietako 23 industrialdeetan 27 pabilioi eta 10 partzela, hain zuzen ere. Sakanara enpresa berriak erakartzeko, pabilioi eta partzela horien ezagutzea ere jaso dituzte. Azken horietan interesa dutenek udale-

kin harremanetan jarri beharko dute. Bestalde, industrialdeen egoera zein den jakinik, inbertsioen planifikazioa lehenetsi eta haiek mantentzeko estrategia zehazteko aukera izanen dute udalek. Inbentariotan hainbat enpresen harremanetarako bidea, jardura eta

fakturazio datuak jaso dira.

Hitzarmena

Sakanako Mankomunitateak eta Nasuinsa enpresa publikoak elkarlan akordioa sinatu zuten joan den urtean. Haren bidez ibarreko industria-zoruari, azpiegiturei eta

Datuak

100 enpresa

Sakanako enpleguaren %90 dute.

2.075 lanpostu

Horiek galdu ziren Sakanan 2008-2013 aldirian. Haietatik %69 metalurgian, metalezko produktuen fabrikazioan, eraikuntzan eta prezisiozko ekipo eta tresnen eraikuntzan galdu ziren.

industria-jarduerari buruzko datuak partekatu dituzte Mank-ek eta Nasuinsak. Akordio horren fruitua izan da Sakanako Industrialdeen Inbentarioa. Bi erakundeek hitzarmena berritu zuten pasadako ostegunean Utzaganen egindako aurkezpenean. Sakanakoa etorkizunean Nafarroako beste eskualde batzutarazabalduko den esperientzia pilotua da.

>> Altsasu

Inprimaketa ingurugiroa errespetatuz

Inprimaketa eta ingurugiroa errespetatzaren erronkaren inguruan hitzaldi-egtabaia izan zuten lortia kultur gunean atzo. Carlos Casado, Ricoh enpresako aditua eman zuen hitzaldia Altsasuko Txartel dendarekin batera.

Larraitz Amadoz Lazkano

Bateragarriak dira inprimaketa eta ingurumenarekiko errespetua? Erronka gainditua! Horrelaxe izendatu zuten atzoko hitzaldia. Gai horren inguruan hainbat mito izan dira eta gaur egun inprimaketa eta ingurumena errespetuz tratatzea posible dela egiaztatu nahi izan zuten atzo Altsasuko kultur etxean. Carlos Casado, Ricoh enpresako aditua izan zen hizlaria eta hainbat gai landu zituzten. Besteak beste, papera benetan jasangarria den euskarria, emozioak eraginkortasunez sortzen dituen euskarria, komunikatzearen kostu erreala,



Alberto Anguiano Ricoh enpresako aditu Carlos Casado aurkezten.

karbono-aztarnaren definizioa eta Txartel denda zure karbono-aztarna konpensatzen duen egiaztaria gaiak landu zituzten. Sakanan

inprimatze berdearen filosofia zabaltzea da egtabaia horren helburu nagusia.

Alberto Anguiano, Altsasuko

Karbono konpensazio hori nola egiten da?

Txartel dendak Nazio Batuen Erakundeari (NBE) erositako bonu batzuen bidez egiten du. Munduko herrialde guztiak isurtzeko kupoak dauzkate, eta bonu horiek gutxien isurtzen duen herrialdeari erosten zaizkio. Diru hori, NBE bidez, hainbat proiektu egiteko erabiltzen da, hala nola, parke eolikoak, ospitaleak. Bonu erosketak horrek karbono konpensazioa egiaztatuko luke, baita erabiltzen diren prozedurak.

Txartel dendako nagusia aitzindaria da ingurumena errespetatzen duten inprimatze-zerbitzuak gartzen. Txartel dendak, bertan ekoiz-

ten den material guztia ingurugiroarekin errespetuz egina dela egiaztatzen du. Ekoizpenaren karbono-aztarna konpensatzen du, ingurumen eragina egiaztatzen du, erabiltzen den papera, papera ekoizteko erabili den ura eta banaketa lanetan erabiltzen den erregaia ere egiaztatzen da. Bi urte daramatza dagoeneko inprimaketa mota hori garatzen. Ricoh enpresaren bidez sartu zen zerbitzu horretan Txartel denda. Nafarroan, maila altuago batean, Volkswagen ala Nafarroako Unibertsitatea bezalako entitateek ere prozedura berdina jarraitzen dute.

Ingurumena errespetatzen duen inprimaketaz aparte, Alberto Anguiano asmo berriak ere badauzka buruan. Elektrizitate berdea erabiltzeko aukera aztertzen ari da nahiz eta garestiagoa izan.

Aldatzea jarrera bat da. Irabaztea gogobetetzea.

#changeisgood

ABC 2016

Hyundai Tucson Berria. Spainian 2016ko kotxerik onena.

Aldaketaren apustua egin eta irabazi dugu. Sari handi bat lortu dugu: Spainian 2016ko kotxerik onena izatea. Kotxe handi bati saria baina batez ere jarrera bati. Mila esker Hyundai Tucson kotxean apostu ezberdin bat ikusi duzuenoi.

Aldaketaren poterea nabaritu www.hyundai.es-en

NEW THINKING. NEW POSSIBILITIES.

AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A.
ALTSASU • 948 562 261 • IRURTZUN • 948 600 657 • www.autsanmiguel.com



Gama Hyundai Tucson: Isuriak CO₂(gr/km): 119-175. Kontsumo mixtoa (l/100km): 4,6-7,5.

» Arakil

Sakanako eskola publikoen festaren aurkezpena

Gaur, 19:30ean, Irurtzango kultur etxean

Sakanako Dereduko eskola publikoen festa aurten Irurtzunean hartuko du, apirilaren 24an. Egun horretarako prestatutako egitaraua, kartela eta bideoklipa gaur aurkeztuko dute. Atakondoa ikasketxe publikoko LHko 5. mailatik gorako ikasle guztiek, marrazketako irakaslearen laguntzarekin, antolatutako kartel lehiaketan

parte hartu zuten. Proposamenen artean DBHko 2. mailako ikasleena aukeratu zuen. Eta hartan oinarrituta sortu du guraso batek kartela.

Festa iragartzen duen bideoklipa kanta 11 aldiz taldeak sortu du (Irurtzun, Izurdiaga eta Ziako guraso banak eta bi iruindarrek osatzen dute). Kantuari irudiak jarri dizkionak eskolako beste guraso bat izan da. Bideoklipa



2015ean Olaztik hartu zuen festa eta aurtengoa Irurtzunen aurkeztuko dute.

eskola komunitate guztiak parte hartu du, ikasleak, gurasoak eta irakasleak. Sortzen-en dauden

eskola publikoetako guraso elkar-teeak, ibarreko guztiak, antolatu dute 24ko festa.

» Irurtzun

Larrazpiko lau paretetik kanpora

Larrazpi gazte elkarteak bere eguna ospatuko du, bihar, 13:00etatik aurrera. Gazte elkartearen inguruan ibiltzen direnak eta gazte gehiagok zerekin gozatu izanen dute.

Egitaraua

13:00etan Larrazpi egunaren hasiera.

14:00etan Bazkaria.

15:30ean Mus eta partxis txapelketak. Bertan izena eman.

19:30ean Kalejira, Larrazpitik abiatuta.

22:00etan Kontzertuak, Barazki Gunean: Brigada Improductiva, Alerta Gorria, Sofokaos, Desperdizio eta Dj Jo ta Txo

SAKANA

Gazteek profesionaltasun prestakuntza hobetzeko bi ikastaro

2. mailako profesionaltasun ziuertagiri ofizialerako sarbidea eta web orrialdeen diseinatzaile eta garatzailea. %100ean subentzionatuta daude. Informazioa eta izen ematea: 948 144 582 edo empleo@nuevagestion.org e-postan

Nueva Gestion fundazioak Sakanako animatika 3D enplegu tailerra eman zuen 2014ean eta 2015ean. Haren ondoren, bi ikastaroko eskaintza egin du 30 urtetik beharako gazteendako. Beti ere, lehen-tasuna izanen dute lehen lana bilatzen ari direnak, langabezian luze daramatenek, prestakuntza baxua

dutenek edo Prerapa planekoek. Saiok Arbizun dagoen Utzugane eraikinean izanen dira.

Aurreneko ikastaroa bigarren mailako profesionaltasun ziuertagiri ofizialerako sarbidea izena du. Ikasketak bukatu ez eta titulaziorik ez duten gazteendako da, bukatutakoan ikasketa profesionalak egiteko aukera zabalitzen baitie. Garagarrilaren 2an hasi eta azaroaren 14an despedituko litzateke (420 ordu). Hiru modulu ditu: gaztelania, ingelerazko komunikazioa eta matematiketarako

gaitasunak. Azterketak ikastaroren barne daude. Izena eman nahi dutenek DBH edo antzeko ikasketarik ez dute izan behar.

Bigarren ikastaroa web orrialdeen diseinatzaile eta garatzailearena da, bigarren mailako profesionaltasun ziuertagiri ofiziala ematen duena. Maiatzaren 2an hasi eta irailaren 13an despedituko da (560 ordu), gehi praktikak. Ikastaroan azterketak egingen dira. Izena eman dezakete DBH edo LHko 2. mailarako sarbidea ikasketak eginak dituztenak. +www.guaixe.eus

» Altsasu

Udalak Dantzalekuko gunearen kudeaketarako deialdia egin du

Proposamenak apirilaren 18ra arte aurkeztu daitezke udaletxean. Urte baterako kudeaketa emanen du udalak, bi urte gehiago luzatu daitezkeena

Altsasuko Udalak Dantzalekuko kirol gunea kudeatzeko deialdia egin du. Tabernaren kudeaketa hartzen duenak, horrekin batera, kirol gune guztiaren mantenuaz eta Usolarraingo aisialdi guneaz eta Txuspo Poyok egindako zuhaitz

etxearen mantenuaz eta garbiketaz arduratu beharko du. Azken hori deialdi honetako berrikuntza da. Horregatik, Altsasuko Udalak deialdiko diru kopurua handitzea erabaki zuen. Udalak urteko 31.000 euro (BEZ kanpo) emanen dizkio kudeatzaileari, hau da, 2.600 euro hileko. Horretaz aparte, tabernako irabaziak kudeatzailearendako izanen direla zehaztu du udalak.



Herrirako lau proiektu lantzeko topaketa irekiak

Gaur, 9:00etan, Gure Etxea eraikinean eta apirilaren 9an, bihar, 10:30ean, Iortia kultur gunean

Altsasun alokairu soziala eta helduendako janari zerbitzua martxan nola jarri, pergola bat non jarri eta herriaren irudiaren inguruan hausnartu eta planifikatzea. Horretarako dira EH Bilduk antolatutako Zehazten topaketa irekiak. Haietarako joateko EH Bilduko bozkatzaileak dago izan beharrik, "soilik lau proiektuetatik bat lantzeko interesa izatea, herri hobe bat lortzeko helburuarekin". Koalizioaren asmoa da altsasuarren parte hartzearekin aipatutako lau proiektu horien inguruko plangintza egitea, hurrengohilabeteetan landu eta aurrera eramateko. Topaketa irekietan "proiektu ahalik eta hobereenak osatu" nahi dituzte. Gaur antzeko proiektuak landu dituzten pertsonen azalpen laburrak entzun ondoren, proiektuen ezaugarriak definituko dituzte. Bihar, berriz, planifikazioaren txanda izanen da. EH Bilduk Altsasu 2020 Topaketa Irekietan herrian aurrera eramateko hainbat ideia jaso zituen eta landuko diren lau proiektuak herri-bozketatik bidez aukeratu zituzten.

SAKANA

Nafarroako II. Gazteria Planerako proposamenak jasotzeko epea zabalik

Nafarroako Gobernuak Gazteria Zuzendaritza-ordea da Nafarroako II. Gazteria Plana 2016-2019 egiten ari dena. 14 eta 30 urte bitarteko gazteek planaren prestaketan parte hartzeko zenbait bide antolatu ditu. Esaterako herrialdeko 42 herrietako gazte guneetan proposamenak jasotzeko ontzi bana jarri du. Haietako bat Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean dago. Horretaz aparte, Gazteria Planean parte hartzeko beste aukerak badaude: web bidezko inkesta, topaketak eta parte hartze tailerrak. Oraingoz azken horietako bat bera ere ez da Sakanan aurreikusita.

» Altsasu

Txakurren errolda eguneratzeko deialdia

Altsasuko Udalean animalien eta herriaren arteko bizikidetzaren hobetzeko lantalde ireki bat sortu da aurtentzen. Lantalde horretatik Altsasun txakurrak dituzten edo izan dituzten bizilagunei eskaera egin diete: euren maskoten egoeraren berri Altsasuko albaitariari ematea. Deialdi horren helburua da Altsasuko txakurren errolda eguneratzea, hau da, errealitateak eta erroldak ahalik eta gehien bat egitea. Javier Ollo Martinez alkateak esan digunez, "modu horretan bai udalak bai albaitariak bestelako zerbitzu batzuk bezala hobeto lan egin izanen dute".

» Uharte Arakil



Oskiera erromerian

Pazkoko bigarren igandea izanik uharter mordo bat Oskia bidea hartu zuten. Bezperan iritsi zen Aralarko aingeruaren irudia Uhartera eta hura buru zutela iritsi ziren harratean dagoen ermitara. Mikel Garzandia apaizak meza eman zuen. Aingeruaren irudi ibiltaria horrela Sakanaz despeditu zen. Astea Iruñean emanen du eta, ondoren, Nafarroako makina bat herri bisitatuko ditu. Urtero moduan 300 bat herri bisitatuko ditu Aralarko aingeruak. Ibilbide hori Berpizkunde igandean, martxoaren 28an, abiatu zuen. Santutegia eta Baraibar arteko 9 km-ak oinez egin zituzten 70 bat fededunek. guaixe.eus-en argazki galeria ikusgai.

SAKANA

Institutukoak NUPen bisitan

Altsasu Institutuan Batxilergoko 2. maila ikasten ari diren 33 ikasle Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP) ezagutzeko aukera izan dute. Aurreko ostegunean egin zuten bisita. Ikasle sakandarrek NUPen ikasketa eskaintza eta Arrosadiko campusa ezagutzeko aukera izan zuten. NUPEk, gaur egun, sei fakultate eta eskola ditu. Haietan 18 titulazio eta bi gradu bikoitz ikasteko aukera dago.



SAKANA

Lanbide Heziketako tailerretik Portugalgo enpresara

Martxoko azken bi asteetan Lanbide Heziketako lau ikasle Portugalen trebatzen egon dira Erasmus programaren bidez. Beste bi ikasle daude orain han. Aurrenekoek euren esperientzia kontatu digute

Lisboa ondoko Setubal hiriko Alstom enpresan ikasten bi aste eman dituzte Ruben Barrosok, Jon Galarzak, Alex Salgadok eta Jon Fernandezek. Guztiak Sakana Lanbide Heziketako institutuko soldadura ikasleak dira. Erasmus programaren bidez izan dute aukera hori. Guztiek zuten goi gradu eta graduertaineko ikasleendako hiru hila-beteko programaren berri, joandako lagunengatik eta institutuan bertan lastailan haren berri eman zieten. Otsailean bi asteko programaren berri eman zieten eta dozena erdi bat ikasleak aukera aprobetxatzea erabakizuten. Ikaskideei hemen geldituta galdu dutena kontatu diete dagoeneko.

7:00etan esnatzen ziren eta enpresako autobusean lantokira joaten ziren eta han zortzi ordu ematen zituzten. Enpresan ez ziren lanean egon: “enpresako soldatzaileak trebatzen zituen langilea gurekin egon da. Hemen altzairua



Portugalen ikasten izan diren ikasleak. Laukoteak, taldean joanda, erreparatzen utzi zituen.

karbonoarekin soldatzen ikasten dugu. Han soldatu aurretik metalak nola prestatu erakutsi digute. Eta gero kromoarekin eta molibdenorekin aleatutako altzairu bereziak soldatzen ikasi dugu. Pixkanaka piezak atera ziren”. Laurek aho batez esan dute: “ikasitako guztia berria zen guretako”.

Oso pozik eta eskertuta bueltatu dira: “errepikatze modukoa da”. Fernandezek: “haiek gu hilabete gelditzea nahi zuten, baina ez zegoen aukerarik eta bueltatu beha-

rra izan genuen. Esan digutenez, “enpresak gure kabuz bueltatzeko aukera eman zigun. Hemengo praktikak bukatu ondoren, dagoen lanaren arabera...”

Lauren irakaslea da Ramon Hijarzo eta berak azaldu digunez, Portugalgoa “soldaduran puntako enpresa da. Gauza oso bereziak egiten dituzte. Edozein industria motarendako galdarak ekoizten dituzte: nuklear zentralak, pretrokimikoak, birfindegiak, itsasontziak... Lurrina sortu eta argin-

darra ekoizteko galdarak dira”. Irakasleak zehaztu duenez, “gehiena hoditerian egindako lana da, hemen ez dugu halakoan aritzen den industriarik apenas. Kalitate eta exijentzia maila oso handia du enpresak. Altsasun ikasten dute naz aparte, soldaduraren esparrua askoz zabalagoa dela ikusi dute ikasleek”.

Nazioarteko harremanak

Hiru hileko egonaldietan ikasleak bakarrik joaten dira. Baina bi

asteko egonaldietarako tutore bat joatea eskatu dute. Hijarzo hiru egunerako joan zen haiekin. “Enpresako aurkezpenean haiekin egon nintzen. Enpresak esperientzia handiko langile bat jarri zuen ikasleentzako tutore gisa. Ez dute ekoiztu, ikasten egon dira”. Sakana institutuaren asmoetako bat atzerriko ikastetxeekin harremana izatea da. Horregatik, Hijarzo han zela baliatuz Portugalgo Lanbide Heziketa institutu batekin harremana egin zuen.

Sakanako Lanbide Heziketa institutuan Erasmus programaren ardura Arantza Bengoetxea Intxaustik du. Hark eman zien ikasleei programaren berri. Bengoetxeak ikastetxearendako esperientzia positiboa izan dela esan digu: “enpresarekin harremana mantentzen saiatuko gara, ea heldu den urtean esperientzia errepikatzerik dagoen. Trebakuntzak merezi duenaren bermea dugu. Ikasleak ikastetxea toki onean utzi dutela badakigu. Ongi trebatuta joan direla esan diete. Pozgarria da hori jakitea”.

+www.guaixe.eus

Urdiain

Benignoren omenaldiko bazkarirako txartelak, larunbatera arte

Apirilaren 16rako egun osoko egitaraua prestatu dute. Eskara handiagatik beste 100 txartel atera ditu antolakuntzak

Benigno Mendia Goikoetxea zena omenezko auzolan erraldoia eta festa antolatu dituzte apirilaren 16rako. Mendia “han eta hemen auzolanean ibili zen, hori baitzen bere eguneroko lana eta jana: auzolana”. Hori jakinik, taldekideek filosofia bera jarraituz, auzolanean antolatu dute haren omenaldia. Benignoren Lagunak talde antolatzaileak egindako deialdiari Sakana guztiko 100dik gora pertsonen erantzun diote eta

haien lanari esker aurrera aterako da omenaldia. Taldekideek boluntario eta laguntza eman duten eragile guztiei esker ona azaldu diete.

Etxajua lehertzearekin batera hasiko da ospakizuna. Mendia gaztetan txirrindularia izan zenez, Burunda txirrindulari taldeak omenaldiarekin bat egin du eta herrian barna txirrindularien ohorezko buelta izanen da. Eguerdiko omenaldian Mendiaren omenezko plaka jarriko dute. Hori xumea izanen da, “ongi merezitako omenaldia” 20:30ean



Auzolan-omenaldiaren aurkezpenean Benignoren hainbat lagun.

izanen baita, frontoian. Besteak beste, “haren argazkiekin egindako bideoak, musika eta dantza hunkigarriak izango ditugu ikusgai ordu betez”. Haren ondoren afari legea egin eta kontzertuekin gozatzeko aukera izanen da. Benignoren Lagunak Jaibus zerbitzua izanen dela aurreratuko dute.

Bazkaria

Benignoren Lagunak taldekoek hasiera batean 500 pertsonendako bazkaria egiteko asmoa zuten. Eskara kopurua ikusita beste 100 pertsonendako txartelak atera dituzte. Mendiaren omenaldiko bazkarian izan nahi dutenek larunbatera arte dute txartelak eskuratzeko, gero jaso egingen

Egitaraua

10:00etan Txistularien diana.
11:00etan Hamaiketako, plazan.
11:30ean Txirrindularien ohorezko buelta.
12:00etan Omenaldi xumea, plazan.
12:30ean Musika, plazan.
13:30ean Haurrendako bazkaia, frontonien.
14:30ean Helduendako bazkaia, frontonien.
17:00etan Urdinen kantaitan.
18:00etan Kalejiran plazara.
20:30ean Omenaldia. Ekitaldia frontonien.
22:00etan Bokata-afaria, plazan.
Ondoren kontzertuak plazan: Dentera, Garabatos eta Txino kudeiro.

dituzte eta. Haur eta helduendako txartelak Urdiaingo Mareo eta Kaluxa tabernetan edo Oltagutiako Barandi tabernan daude salgai. benignolagunak@gmail.com e-posta bidez erreserbak egin daitezke. Zelia-koak direnek edo elikagaiaren bati alergia diotenek aurretik abisatu behar dute.



Beñat Intxausti · Leire Olaberria

Sekulako puntua!

emakumeenbira.eus eta itzulia.eus #EUSberdinak dira. EUSberdinu zu ere tropeletik eta sortu zure .eus domeinu-izena.

15
euro

Apirilaren 1etik 17ra prezio berezian.

+34 943 085 051

info@domeinuak.eus



www.domeinuak.eus

>> Etxarri Aranatz

Arratibel: "gatazkaren konponbidea bilatzen ari garen honetan ez du ez buru ez hankarik epaiketa honek"

Larraitx Amadoz Lazkano

Iñigo Gonzalez, Patxi Arratibel (Xafan), Gorka Mayo, Iker Moreno eta Gorka Zabala Guardia Civilak 2011ko urtarrilaren 18an Ekinen aurkako sarekada batean atxilotu zituen. Grande Marlasca epailearen aginduz izan ziren auziperatuak. Lau eta bost egun artean inkomunikaturik egon ondoren atxilo hartutako guztiek torturak publikoki salatu zituzten. Arratibelek adierazpen ofiziala sinatzeko erabili zuen "Aztungal" hitza, hau da, laguntza alderantziz, torturaren salaketaren sinbolo bihurtu dute.

2015 urteko maiatzean, Estraburgoko Giza Eskubideen Auzitegiak Espainiar estatua zigortu zuen Arratibelek egindako tortura salaketa ez ikertzeagatik. Bost



auziperatuak urte eta erdi kartzelan egon ziren atxilotuak izan ondoren. Ostegunean epaiketa iza-

nen dute Madrilen. Fiskalatzak zortzi urteko espetxe zigorra eskatzen du.

tzen gaituzte. Guk egiten dugun gauza bakarra Euskal Herriaren askatasunaren aldeko lan politikoa da. Besteak beste, bilerak, hitzaldiak, kontzertuak antolatu, hori da kriminalizatu nahi dutena. Eta gurea, beste batzuk bezala epaiketa politikoa bat izanen da. Bestalde, guretako torturaren aldagai aipatzea garrantzitsua da. Esan beharra dugu epaiketa hau torturapean oinarrituta dagoela. Gu denak torturatuak izan ginen eta horren bidez inculpazio eta autoinkulpazioak lortu zituzten. Gatazkaren konponbidea bilatzen ari garen honetan ez du ez buru ez hankarik epaiketa honek. Lortu dituzten frogak gehienak torturaren bidez lortu baitituzte.

Tortura horiek ikertu al dira? Salatu genituen tortura guztiak Nafarroako Auzitegiak itxi egin zituen. Nire kasuan, Estraburgora eraman genuen salaketa, eta hor zorte gehiago izan genuen Espainia zigortu egin zutelako nire tortura kasua behar bezala ez ikertzeagatik.

Segura Operazioko epaiketetan akordio batera iritsi dira, zuen epaiketarekin antzeko zeezer gerta liteke?

Oraindik ez dakigu ezer. Hau nik pertsonalki pentsatzen dudana izanen litzateke. Gaur egun Madrilen, Euskal Herriarren aurkako epaiketek ez dute lehen bezain

beste saltzen, badirudi garrantzi eza horrek akordio batzuk ahalbidetzeko bidea erraztu duela. Dena den, gure kasuan ez dakit zer gertatuko den. Beste kasuekin gertatutakoak ez dakit zehazki garai berri bat irekitzen duen ala ez.

Jardunaldi, hitzaldi, kontzertuak, ekitaldi ugari antolatu dituzue hilabete hauetan, ezta? Bai, bi bide eraman nahi izan ditugu antolatutako gauza guztietan. Batetik tortura salatzea, eta bestetik epaiketa politikoen zentzugabekeria. Lan politikoa egiteagatik inor ez litzateke epaitua izan beharko. Kondestable jauregian torturaren inguruko hitzaldi bat egin genuen hainbat adituren laguntzarekin eta arrakasta handia izan zuen. Horren bidez jakin genuen gizartean torturaren inguruko sentsibilizazio handia dagoela.

Parlamentuan izan zarete, ezta? EH Bildu, Geroa Bai, Ahal Dugu eta I-Eren babesarekin Parlamentuan egoteko aukera izan dugu. Gure kasua aurkeztu dugu bertan, baita lehen aipatu dizudan Ekinen beste aurkako sarekadarena ere. Torturari dagokionez, gure testigantzen zatiak irakurri ditugu eta hainbat dokumentu aurkeztu ditugu egiaztatzeko asmoarekin. Horrekin batera, epaiketa politikoen zentzugabekeria nabarmendu nahi izan dugu.

tegi Nazionalen. Bigarrena, berriz, maiatzaren 17an. Biei Ekinekokide izatea leporatzen diete eta 8 eta 9 urteko espetxe zigorra eskatzen dute. Horregatik, 23ko manifestazioaren leloa *Epaiketa politikorik ez! Xafan eta Joxe aske!* izanen da. Manifestazioari babesa adierazi diote ELAK eta LABek, baita 75 bat sakandarrek.

Gainera, herri bazkariarekin jaso den dirua epaiketen gastuei aurre egiteko erabili dute. Auzipetu bakoitzak 4.000 € beharko ditu epaiketari aurre egiteko. Bazkari horretarako txartelak Sakanako ohiko tokietan salgai daude, 15 eta 8 eurotan. Bestetik, Hilaren 14an Madrilerako joateko autobusa izanen da. +www.guaixe.eus

SAKANA

Beriandik presoan eskubideak aldarrikatu dituzte

Euskal presoan eskubideen aldeko aldarrikapenak Gorbeia, Anboto, Txindoki eta Beriain mendietatik zabaldu zuten igandean. Deialdiarekin ehundik gora pertsonak bat egin zuten. Arbizutik 9:30ean abiatu ziren. San Donato ermitaren ondoan talde argazkia egin zuten, preso eta iheslarien etxeratzea eskatzen zuten banderolak agerian zirela. Sareren presoan giza eskubideen aldeko trenaren hurrengo geltokiak herrietan izanen dira, maiatzaren 14an eta 15ean.

>> Altsasu

84 kontrol

Ospa mugimenduak ilbeltza eta martxo bitartean Altsasun 84 kontrol izan direla salatu du. Errepresio indarren kontrako mugimenduak jakinarazi duenez kontrol horietatik 62 Guardia Civilak jarri zituen eta gainontzeko 22ak Foruzaingoak. Ospako kideek, bestalde, bagoaz aurrera, badoaz kanpora lelopean batzarra egin zuten, "errepresioarekin bukatzeko eta askatasunen alde aurrera egiteko".

>> Arbizu

Gorenak FyT-ko kideen kontrako epaia berretsi du

Espainiako Auzitegi Gorenak Falange y Tradición taldeko kideen kontra Auzitegi Nagusiak emandako epaia berretsi du. Hala, taldeko hiru kide sabotajeak eta mehatxuak egiteagatik zigortu dituzte. Mehatxu delituagatik zigortutakoak dira: Jose Ignacio Irustari bi urteko espetxe zigorra eta Javier Lopez Monreali eta Borja Perez Illerari urte eta erdikoa. Aurrekaririk ez dutenez bat bera ere ez da espetxera joanen. Epaileek frogatuz jo zuten hirurek memoria historikoko oroigarrien kontra eta mehatxuak egin zituztela. Baina fiskaltzak eta akusazioek eskatu bezala delituak terrorismo gisa izendatzea epaileek ez zuten egoki ikusi. Berretsitako epaiaren arabera zigortuek Arbizuko Udalarari 1.500 euro ordaindu beharko dizkiote eta mehatxatuak izan ziren pertsona bakoitzari beste 1.000na euro.

Epaitu diengertaeren artean 2009ko agorrilaren 20an Arbizun egindakoa zegoen. Orduko Arbizuko alkatearen eta hiru zinegotziren izenak eta haien kontrako heriotza mehatxuak ("orain zelatan, bihar hilko zaituztegu") agertu ziren idatzita Arbizuko udaletxeko fatxadan. Aldamean Falangeren logotipoa eta "Otsaportillo 1936. Gora Barandalla!" idazkia zeuden. Gerora Falange y Tradición taldeak bere gain hartu zituen Euskal Herrian egindako 25 eraso, baina zerrendatugabe. Urte hartako lastailaren 23an atxilotu zituzten taldeko bost kideak.

>> Altsasu

Zinegotzi berria

Julen Diaz Oiarbide 23 urteko gazte altsasuarra ordezkatu du Unai Hualde Altsasuko Udalean. Azken horrek Parlamentuko eta alderdiko zerginak udal lanarekin bateratu ezin zituzenez, dimisioa eman zuen. Geroa Bai-ko zinegotziak joan den asteko asteazkenean hartu zuen kargua. Autonomoa ogibidez, Ekonomia Garapen, Merkataritza, Turismo eta Enplegu Batzordeko burua da.



SAKANA

Hualde Nafarroako Lurralde Politikako Gizarte Kontseiluan

Nafarroako Lurralde Politikako Gizarte Kontseiluak herrialdearen helburua lurralde garapenaren jarraipena egin eta bultzada ematea da. Bere baitan erakundeetako, gizarte, ekonomia eta ingurumen arloetako ordezkariak hartzen ditu. Aholkularitza eta parte-hartze erakunde horretarako Nafarroako Parlamentuko ordezkariak, bokalak, Unai Hualde (Geroa Bai) eta David Anaut (EH Bildu) izanen dira. Hala erabaki du Parlamentuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio-ko Batzordeak, bozketan Inma Jurio eta Santos Cerdan sozialistei gailendu baitzaizkie.

PPK denda txikiak sustatzeko eskatu du

Alderdi Popularrak, mozio bidez, Nafarroako Gobernuari eskatu dio Sakanako merkataritza txikiak sustatzeko. Popularrak dendariez, erakundeek eta zerikusia duten eragileez osatutako lan-mahaia osatzea proposatu dute. Bestetik, Sakanako denda txikiak sustatzeko plan bat diseinatzeke eskatu dio. Hartan sektorea bulkatzeko neurriak jaso beharko lirakeela diote popularrak, esaterako: dendenzerga murrizketak edo lan kostuak txikitzea. Aldi berean, PPK Sakanako turismoa sustatzeko kanpainak eskatu ditu, "sakandarrak merkataritza txikiarendako duen garrantziaz jabetu daitezen" esan du Juan Antonio Extremerak. Sektoreareko ordezkariarekin izandako bileretan merkataritza txikiak duten "babes falta" sumatu dutela adierazi du Extremerak. Eta Sakanako Mankomunitateari gaiarekin "utzikeriaz" jokatzeko leporatu dio, horregatik jo dutela gobernura argituz.

gertutik >>

Patxi Arratibel

Auzipetua

Nola gogoratzen duzu Ekinen aurkako sarekada?

Gure atxiloketa hobe ulertzeko atzera joan behar dugu, 2010. urtera hain zuzen ere. Oso urte oparoa izan zen politikoki, urte hartako otsailean, ezker abertzaleak Zutik Euskal Herria sinatu zuen, irailean Gernikako akordioa sinatu zuen, eta 2011ko ilbeltzean ETA-k adierazi zuen su eten iraunkor orokor eta egiaztagarri bat. Su etenaren ondoren gure atxiloketa gertatu zen.

Zenbat atxilotu izan zineten sarekadan?

Sei atxilotu izan ginen guztira, horietatik bat aske geratu zen Auzitegi Nazionalen eta gainontzeko bostak espetxeratuak izan ginen. Sarekada hau baino lehenago, Ekinen aurkako beste operazio bat izan zen, eta bertan Joxe Aldasoro sakandarra atxilotu zuten. Ekinen aurkako bigarren sarekada izan zen gurea. Madrillgo hainbat kartzelatan sakabanatu gintuzten, eta urte eta erdi espetxean egon ginen.

Zer irakurketa egiten duzue zuen epaiketaren inguruan?

Alde batetik gure lan politikoa kriminalizatu nahi dutelako atxilo-

Aurtengo Elkartasun eguna, epaituen alde

Elkartasun Eguna antolatu dute Etxarri Aranatz, apirilaren 23rako. Antolatzaileek "indar berezia" egiten dute Patxi Arratibel eta Joxe Aldasororen "askatasunaren alde". Lehenaheldu den ostegunean hasiko dira epaitzen Espainiako Auzi-

» Arakil

Gazteek gazteendako antolatzen dituzten jardueretarako diru-laguntza deialdia



14 eta 30 urte bitarteko gazte arakildarrek gazteendako antolatzen dituzten jarduerak diruz lagunduko ditu Arakilgo Udalak. Horretarako deialdia egin du. Kulturarekin, ingurumenarekin, gizartearekin edo kirolarekin zerikusia dituzten jarduerak aurkeztu daitezke diru-laguntza deialdira. Proiektuak aurkezteko epea hilaren 30ean despedituko da.

Deialdiaren oinarrietan jaso denez, aurtan bertan egin behar dira jarduerak. Laguntza emateko garaian kontuan izanen da proiektuen sustatzaileak 14 eta 30 urte arteko gazte arakildarrak izatea eta jarduerak adin tarte horretako ibarreko gazteei zuzenduak izatea.

Diru-laguntza eskaerajosatzen duen instantziarekin batera, proiektuaren helburuak, haren kalitatearen justifikazioa, eginen diren ekintzak gazteen parte aktiboaren eta eragin sozialaren programazioa, proposamenaren ibarrerako egokitzapena, antzeko esperientziatan izandako eskarmentua, eskatzaileen antolakuntzarako gaitasunaren justifikazioa eta, kirol jardueren kasuan, oinarritzko kirolaren edo bertako kirolaren justifikazioa aurkeztu behar da. Deialdiak 1.500 euroko poltsa du. +www.guaixe.eus

» Irurtzun

Aurrekontu parte-hartzaileetako proiektuetako baten alde igandera arte bozkatu daiteke

Tahonan, M³ Jesus elikaduran, Lorena fruta-dendan, Erosien, udaletxean, Martxueta liburu-dendan, jubilatuen elkartean edo Pikuxarren daude ontziak. Bestela, preparirurtzun@gmail.com helbidearen bidez egin daiteke. Aukeratutako proiektuarekin batera, heldu den urterako proposamenak idazteko aukera dago

Udalaren aurrekontuaren zati bat irurtzundarren parte-hartzearekin zertara bideratzen denerabakitzen den seigarren aldia da. Hura lantzen duen herritar taldeak joan den urtean bildutako ideiak izan ditu abiapuntu. Horrekin batera, ohi dutenez, Irurtzungo hainbat talde eta kolektiborekin elkartu dira, guztira 286 lagunekin. Saio horietan taldeak ekarpen gehiago jaso ditu. Azken prozesu honek berritasuna izan du: proposamena egin duen kolektibo bateko ordezkariak talde bileretan zuzeneko azalpenak eman dituzte. "Horrela, herritarrek askoz zuzenago parte hartzen dute aukeratzeko prozesuan".

Bost urteko ibilbidean irurtzundarrek herrira hobetzeko makina bat proposamen egin dituzte Parte-hartze Aurrekontuen taldearen bidez. Haiek udalari jakinarazi diote. Urtero, haietako bana izan da bozka bidez aurrera ateradena. Era berean, jasotako proposamenetako ugari gauzatu egin dira, bai merkeak zirelako, bai egiteko errazak zirelako. Horregatik, taldekideek irurtzundarrak proposamen eta iradonkizunak egitera animatu dituzte.



Joan den urtean karpa jartzea erabaki zen. Hainbat ekintza egin dira han.

Bost proiektuak

Osasun etxeko ambulanzientzako sarbidea

Bai ambulanzientzako, bai larrialdietara autoz doazen herritarrendako osasun etxeko sarbidea egokitzeko litzateke asmoa.

Paseatzeko bideen plana

Herrian eta inguruan dauden hainbat bide egokitzeko egitasmoaren helburua da zailtasunik gabeko ibilbide batzuk sortzea, urte guztian erabilgarri izanen direnak.

Plazako zorua eta harmailak konpontzea

Udaletxeko plazan honako lanak eginen lirateke: bai Lizarra kalekoak, bai frontoiko parke aldeko sarbideetako lauza latzak aldatzea; plazako harmailak garbitzea eta sanotzea eta hondatua dagoen tokitan zorua aldatzea.

Gimnasioa

Etorkizunean gimnasio gisa erabiliko litzatekeen lokal bat egokitzeko egitasmoa da. Kiroldegiko bi gelatxo, areto bakar bihurtuko lirateke, etorkizunean gimnasio bihurtzeko. Orain honako lanak eginen lirateke: igelte-roarena, zurginarena, beirak, zoruak, pintura, klimatizazioa...

Jubilatuen elkarteko lehiok aldatzea

San Martin Jubilatuen Elkarteko lehiok deformaturik daude eta ez dute egoki ixten. Bestalde, iparraldera ematen dutenak babesarik gabe daude, hondatuak eta erortzeko arriskua zutenek, kendu egin zituzten. Egitasmoak elkartearen kalitatea hobetu nahi du, tenperatura egokia mantenduz, bai neguan baita udan ere, berogailua kostua murriztuz.

» Altsasu

Altsasuko euskalkia berreskuratzeko ahalegina



Gaur, 19:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean

Hainbat altsasuarren artean euren euskara aberasteko kezka aspalditik bada. Altsasuko euskalkia desagertua badago ere, haren ezagutzea jasoak daude [Altsasuko euskara. Jose Luis Erdozia (2006, Mank)] eta aldameneko Urdiain herrian oraindik eusten diote bereari. Horiek kontuan izanik, Altsasuko euskalkia berreskuratzeko deialdia egin dute. Iortia kultur gunean dago hitzordua jarria. Bertara hurbiltzen direnek euskalkia berreskuratzeko euren proposamenak egin eta denen artean aurrera eraman litezkeenak zehaztuko dituzte.

Gaurko deialdiaren osagarri Koldo Zuazo Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta euskalkietan aditua den hitzaldiarekin osatu behar zen, baina osasun arazoengatik atzeratu egin da. Zuzok Urdiainen egonaldia luzea egin zuen bertako euskara ikertzeko 2007an eta 2008an. Sakanako euskara. Burundako hizkera liburua izan zen horren emaitza.

guaixe.iragarkilaburrak.com

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Guaixe astekarian: Astebete: 3€ / 3 Aste: 8€ (BEZ barne). Argazki bakoitzeko 3€. Lan eskaerak/eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: **doan**. Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en.

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.eus

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Etxebizitza lursailarekin salgai Etxarri

Aranatzen. 4 gela, 2 komun, sukalde-egongela, garajea eta 130 metro karratuko lursaila. Interesatuak deitu 676 92 71 65 telefonora.

Opatutakoak / Galdutakoak

OPATUTAKOAK

Altsasuko Udaltzaingoa Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

ikastaroak

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU). Bere udaberriko eskaintza aurkeztu du. Otsaila eta maiatza bitartean 4 ikastaro eta 4 hitzaldi antolatu ditu Nafarroan, www.ueu.eus

Eskelak



Txarete Ganboa Garziandia

Animo momentu latz hauetan
Leire eta familia.

96ko Leireren ikastolako gelakideak

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu



**Bidali mezua zorion@guaixe.eus-era
edo hots egin
948 564 275 telefonora**



Cruz Mundiñano Baleztena

I. urteurrena

(1924ko maiatzak 3 - 2015eko apirilak 7)

Aita, aittuna: Beti gurekin!



Etxarri Aranatz, apirilak 7.

Txarete Ganboa Garziandia

Zuk ereindako haziak fruituak ematen dirau.

Andra Mari ikastolako OHOKo aurreneko promozioa

Sakana, 2016 apirilaren 4an.



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza www.tanatoriosirache.com

Jaime Zelaia Auzmendi

Isil-isilik joan zinen,
baina zure doinu, barre eta
algarak
gurekin jarraitzen dute.
Maite zaitugu.

**Itziar, Iñigo, Aintzane, Saioa, Arkaitz,
Elene, Iزارo eta Arane**

Bakaikun, 2016ko martxoak 27an.

**Jaime Zelaia Auzmendi**

Gure taberna, zure taberna egin da.
Umore eta alaitasun izugarria jartzen zenuen.
Egurditan kontatutako txisteak ahaztezinak dira,
gure oroimenean egongo dira beti.
Faltan botako zaitugu.

Koxko

"Hor goian Itxaron gaitzazu, gin-tonik bat hartzen duzun bitartean".

Jaime Zelaia Auzmendi
"ASTO ZAIA"

Maite zaitugu.



Ama eta Bakaikuko familia guztia

**Txarete**
Ganboa Garziandia

Nekez uzten du bere sorterrria
sustraiak han dituenak.

Itsasoren lagunak

Lakuntza.

**Hainbat**
aukera

Galdetu

948 564 275

**Txarete**

93ko kintako ikastolako
ikasleen partez,
doluminak lagun eta familiari.

Itsasoren gelakideak

**Txarete**
Ganboa Garziandia

"... eta malko bakoitzeko
maite zaitut gehiago..."

Eskerrik asko emandako guztiarengatik.

Lakuntzako Euskararen Aldeko Batzordea

**Txarete Ganboa Garziandia**

Aurrerantzean, egun argiak
estaliko ez duen izar bakarra;
gau ilunak zurbilduko ez duen
lili bakarra izanen zara.

Andra Mari ikastolako zure lankideak

Etxarri Aranatzan, 2016ko apirilaren 5ean.

**Txarete Ganboa Garziandia**

Urak dakarrena
urak daroa,
zuk emandakoa
gurekin gelditzen da.

**Andra Mari ikastolako guraso,
ikasle eta langileak**

Etxarri Aranatzan, 2016ko apirilaren 5ean.

**JAIOTZAK**

- Nahia Urtasun Ruiz, martxoaren 28an Lakuntzan.
- Maia Lakuntza Gartzia, martxoaren 28an Arbizun.
- Pello Aranburu Goñi, apirilaren 3an Etxarri Aranatzan.

HERIOTZAK

- Ernesto Barriga Avila, martxoaren 25ean Altsasun.
- Jaime Zelaia Auzmendi, martxoaren 27an Bakaikun.
- Agustin Reparaz Urkia, martxoaren 30ean Arbizun.
- Juan Lakuntza Castejon, apirilaren 2an Arbizun.
- Luis Enekoitz Iriarte, apirilaren 2an Lakuntzan.
- Txarete Ganboa Gartzandia, apirilaren 3an Lakuntzan.

Informazio hau epaitegietan eta
udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez
duenak, han jakinarazi dezala.

**Oroigarriak egiten ditugu**

Nahi duzun argazki eta testuarekin

Foru plaza 23-1 Altsasu • 948 564 275 • argi@guaixe.eus

GUAIXE
KOMUNIKAZIOA

PILOTA

TORNEOTAN MURGILDUTA: Pilotari sakandarrak torneotan murgilduta dabil-tza, besteak beste, Agoizko Elkar Pilota

Txapelketan, Bortziritako lau t'erdiko Josebeto Ezkurra Memorialean eta Irurtzungo Pilota Txapelketan.

Pilota

Olaztikoko XLV. San Migel Pilota Txapelketarako izena ematea zabalik

Apirilaren 21era arte eman daiteke izena

Olaztikoko San Migel elkarteak eta Sutegei kluba XLV. San Migel Elkarte Pilota Txapelketa Herrikoia prestatzen murgilduta daude. Aipatu txapelketa hurrengo mailetan jokatu da: 1. maila (goxua), 2. maila (goxua) eta 3. maila (goxua). Izena ematea zabalik dago apirilaren 21era arte, ondoko telefonoe-tarabots eginez 636 889 423 (Jose-txo), 617 656 276 (Fermin) eta 637 830 641 (Alberto). Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu San Migel elkarte kontu zenbakian (2100 5365 21 2100147311).

XXIV. Irurtzungo Pilota Txapelketa abian

Ostegun Santuan hasi zen XXIV. Irurtzungo Pilota Txapelketa, afizionatuen mailako torneo ederra, eta dagoeneko hiru jardunaldi jokatu dira. Asteburu jokatu dira kanporaketak, eta final handiak Irurtzungo Trinitateko festetan erabakiko dira.

Emaitzak:

Martxoak 24

Sanz-Diaz (San Migel) 4 / Senosiain-Labaka (Lagunak) 22
Barbajero-Telletxea (Paz Ziganda) 10 / Otxandorena-Etxamendi (Buru-zgain) 22
Mazkiaran-Mina (Huarte) 22 / Maiz-Esnaola (Bear Zana) 8

Apirilak 1

Ansa-Irurita 22 / Mazkiaran-Mina 16
Mayans-Cordon 22 / Zaranton-Labaka 12

Apirilak 3

Iriarte-Sarasa 22 / Jauregi-Agirre 17
Garralda-Landiribar 22 / Atutxa-Iriondo 12

GRAVNI: Logroñoren kontra aritu ziren Nafarrak

GRAVNI Pilota Txapelketaren barruan Logroñoko selekzioaren kontra jokatu zuen Nafarroak. Tartean pilotari eta palistasakandarrak aritu ziren. Nesken paleta goman Errioxako Garaziri eta Naroari 9 eta 30 irabazi zieten Aristorena eta Ruiz nafarrek. Emakumezkoen frontenisean, gazteen mailan Lasanta eta Ruiz errioxarre 17 eta 30 irabazi zieten Escalak eta Mendinuetak. Nagusien mailan Lorena eta Santolaya errioxarre 30 eta 18 hartu zituzten men-pean Etxarri eta Otegi. Bukatzeko, eskuz binakako pilotan, nagusien mailan, Capellan eta Sanchez errioxarre 17 eta 22 irabazi zieten Yoldik eta Lasak.

Txirrindularitza

Emakumeen Bira Etxarri Aranatzan

APIRILAREN 15EAN, HURRENGO OSTIRALEAN, 2. ETAPA ETXARRI ARANAZTIK ABIATUKO DA, 15:30EAN

Emakume txirrindulari onenak biltzen dituen XXIX. Nazioarteko Emakumeen Bira asteazkenean hasiko da. Birak Etxarri Aranatz izango du 2. etapako abiapuntu, hurrengo ostiralean, apirilaren 15ean, 15:30ean. Etxarritik Altsa-suko norabidea hartuko du emakumeen tropelak, eta Ziorditik Arabara sartuko da, Lautada eta Barrundiatik ibili ondoren Landatik Legutianora jotzeko. Handik Urkiolako gainera (3. maila) joko dute, bertako santutegian egongo baita helmuga.

Etxarri Aranazko Udaletik adierazi dutenez, "oso pozik" daude Emakumeen Birako etapa bat lehenengo Etxarritik abiatuko delako. "Etxarri, eta Sakanan, beti izan dugu txirrindularitzarekin harreman estua eta horrela jarraitu nahiko genuke. Baina horretaz gain, Emakumeen Birako etapa sustatzearekin txirrindularitzan eta kirol guztietan emakumeen presentzia aldarrikatu nahi dugu. Emakumea, kirola eta berdintasuna sustatu nahi ditugu. Emakumeak erreferente izatea nahi dugu, eta gizonen kirolak duen oihartzuna lortzea, bai maila ekonomikoan eta baita maila ekonomikoan ere" nabarmendu du Udalak.

Leire Maiza eta Joana irastorza
Emakume kirolarien lana aitortzeko bide horretan, txirrindula-



Emakumeen Birako aurtengo irudia.

Emakumeen Bira

Apirilak 13, asteazkena, aitzinetapa: Iurreta-Iurreta (3,3 km-ko erlojupekoa)

Apirilak 14, osteguna, 1. etapa: Eskoriatza-Eskoriatza (76,6 km)

Apirilak 15, ostirala, 2. etapa: Etxarri Aranatz - Urkiola (109,4 km).

Apirilak 16, larunbata, 3. etapa: Berriatua - Berriatua (109,4 km).

Apirilak 17, igandea, 4. etapa: Santurtzi - Portugalete (63 km).

ritzan ibiltzen diren bi emakume etxarriarrek, Leire Maizak eta Joana Irastorzak, eginen dute Etxarriko etapari hasiera emango dion zinta mozketan, 15:30ean, Udalak gonbidatuta, Emakumeen Birako hasierara ikastolako eta eskolako neska-mutikoak gonbidatu ditu, halaber, Etxarri Aranazko Udalak.

Euskal Herriko Itzulia Sakanan



Asteazkenean Euskal Herriko Itzuliko 3. etapako Sakana zeharkatu zuen. Contador, Quintana, Aru, Purito, Henaio eta txirrindulari guztiak Ziorditik sartu ziren eta Sakana zeharkatu ondoren Larraunera sartu ziren, etapa Lesakan despeditzeko. Stephen Cummings (D.Data) irabazi zuen etapa. Atzoko etapako emaitzen faltan, Mikel Landa zen liderra, Keldermani segundo bat, Henaio 3 segundo, Sanchezi 9 segundo, Contadorri 11 segundo eta Pinoti 13 segundo aterata. Bihar despedituko da Euskal Herriko Itzulia, Eibarren.

Asier Etxeberria zazpigarrena Valladoliden

Burundakoa Nafarroako selekzioarekin lehiatu zen

Burundako Quesos Albenizeko Asier Etxeberria txirrindularia Nafarroako selekzioarekin lehiatu da asteburuan, Valladoliden, junior mailako V. Federacion Copa Valladolid Trofeoan, Angel Lozano Memorialean. 80 txirrindularik osatu zuten proba, eta Araba-



Asier Etxeberria.

ko selekzioko Oier Lazkano izan zen txapelduna (2:56:43). Asier Etxeberria zazpigarrena sailkatu zen, lehen nafarra (2:51:80). Bestalde, esan beharra dago martxoaren 28an Agurainen jokatu-tako juniorren XLI. Sallurtegi Sarian Asier Etxeberria zortzigarrena sailkatu zen.

Juniorrekin jarraituz, larunbatean XLIII. Amaiak Bat Txirrindulari Saria zegoen jokoa Deban. Ulma taldeko Xabier Murgiondok irabazi zuen lasterketa (2:08:03), helmugara bakarrik iritsita. Burunda Txirrindularitza Klube-ko Quesos Albeniz taldeko Juan Riaño 7.a sailkatu zen (2:10:50), Xabier Maiza 8.a (2:10:59), Alex Uncilla 19.a (2:11:49), Daniel Izquierdo 26.a (2:12:52) eta Oihan Vinagre 28.a (2:12:52).

Bestalde, igandean master mai-

lako lasterketa jokatu zen, XV. Palacio Castillo Gorraiz Trofeoan (86 km). Ibon Garmendia izan zen 111 txirrindularien artean azkarrena

Josu Etxeberria bigarrena eta Ailetz Lasa hirugarrena Tafallan

Igandean kadeteen mailako El Caserío Valsay Trofeoan (46 km) jokatu zen Tafallan. Garaipena etxean gertatu zen, Caramelos El Caserío Valsay taldeko Andoni Urria bakar bakarrik heldu baitzen helmugara (1:22:30). 9 segundorasartu zen tropela eta sprint estuan Irabiako Josu Etxeberria iturmendiarra izan zen bigarrena eta Quesos Burundako Ailetz Lasa hirugarrena. Imanol Galartza (I.I.) 6.a izan zen, Unai Villalobos (Q.A.) 7.a, Mateo Gonzalez (Q.A.) 11.a, Marcos Pison (Q.A.) 14.a, Josu Jaka (I.I.) 22.a, Urko Gorriti (I.I.) 26.a, Jon Gil (I.I.) 30.a eta Unai Lizarraga (I.I.) 48.a. Beranduago sartu ziren Joseba Huarte (I.I.), 58.a, Javier Mitxaus (I.I.) 59.a, Iker Cerviño (I.I.), 62.a, Ander Rosado (I.I.), 64.a, eta Xabier Mauleon (I.I.), 67.a. Caramelos El Caserío Valsay izan zen talde onena, Quesos Albeniz eta Intersport Irabiaren aurretik.

ERBITI ZAZPIGARRENA FLANDIAKO TOURREAN

Igandean 100. Flandiako Tourra jokatu zen, sei ordu luzeko proba ikusgarria, harresien lasterketa. Peter Sagan gailendu zen (6:10:37), urrutetik eraso jo eta gero. Imanol Erbiti eguneko ihesaldian sartu zen eta zazpigarrena iritsi zen helmugara, 48 segundora, postu historikoan, Tope Tenean sartzen den Estatu espainiarreko bigarren txirrindularia izan baitzen. "Egun hau omenaldi bat bezalakoa da niretzat. Ahalegina ikaragarrikoa izan da, baina aurrean giroaz gozatzea izugarria izan da" esan zuen.

Ana Santano
Bularra ez da soilik elikadura
Ez da erraza izango baina merezi duela ziurtatzen dizut
635 811 106
Gartzia Ximenez 16 · Altsasu

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA
Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta
Asteleheneetik ostiralera
Eguneko menua
9€
Asteburuetan
Menu berezia 25€
948 467 876 · Altsasu

Mendi lasterketak

Katarain 12.a Cabraleseko Hiru Bertikaletan



Beñat Katarain, Mikel Rubio eta Noureddine Jdi Cabraleseko Hiru Bertikaletan.

Zabalarako Beñat Katarain, Mikel Rubio eta Noureddine Jdi eta Dantzaleku Sakanako Jose Antonio Salgado Cabraleseko hiru bertikalak osatu zituzten

Bi egunetan hiru Km Bertikal osatu. Hori egin dute Lakuntzako Zabalarako klubeko Beñat Katarainek, Mikel Rubiok eta Noureddine Jdik eta Dantzaleku Sakanako Jose Antonio Salgado. Asturiasen, Arenas de Cabralesen jokatu dira hiru lasterketa hauek, Cabraleseko Hiru Bertikalak, asteburuan, apirilaren 2an eta 3an.

Hiru Km Bertikalak

Korrikalariek 3 proba osatu behar zituzten. Lehenik eta behin, Calluengako Km bertikalak (2,4 km, 984 m desnibel positiboa), bigarrenik Subisomas Km Bertikalak (3 km, 1042 m desnibel positiboa)

eta, hirugarrenik, Aventón Km Bertikalak (1,8 km, 1004 m desnibel positiboa). Paraje zoragarrietan, malda ikaragarriekin egin behar izan zieten aurre.

Calluengan, Ferran Teixido izan zen azkarrena (35:48). Beñat Katarain lakuntzarra 16.a sailkatu zen (42:00), Mikel Rubio irurtzundarra 22.a (42:58), Noureddine Jdi lakuntzarra 64.a (47:56) eta Antonio Salgado altsasuarra 95.a (54:23). Subisomas Km Bertikalean Ferran Teixido izan zen ere onena (39:48). Beñat Katarain 19.a sartu zen helmugara (46:13), Mikel Rubio 31.a (47:43), Jose Antonio Salgado 78.a (55:19) eta Noureddine Jdi 90.a (58:12). Eta, azkeneko igoeran, Aventón Km Bertikalean, Ferran Teixido irabazi zuen (35:29), Beñat Katarain 18.a sailka-

tu zen (42:02), Mikel Rubio 58.a (47:42), Noureddine Jdi 92.a (53:16) eta Jose Antonio Salgado 102.a (54:40).

Horrela, hiru lasterketak kontuan izanda eta hiru denborak batuta, Ferran Teixido izan da Cabraleseko Hiru Bertikaletako garailea (1:51:05), Beñat Katarain 12.a (2:10:15), Mikel Rubio 30.a (2:18:23), Noureddine Jdi 71.a (2:39:24) eta Jose Antonio Salgado 82.a (2:44:22). Argi dagoenez, maila bikaina eman dute gure korrikalariek.

Beraza Montsenyko Ultraren ezin

Larunbatean Montsenyko Ultra jokatu zen (80 km), aldi berean Espainiako Ultra Vedme 2016 txapelketa zena. Nafarroako selekzioarekin aritu zen Jose Luis Beraza. 50. kilometroraino ongi ibili zen uharterra, sailkapenean 20. postuan gutxi gorabehera, baina orkatilan arazoak sumatzen hasi zen, hanka bihurritu eta gero, eta, azkenean 53. kilometroan utzi egin behar izan zuen proba. 87 korrikalariek osatu zuten proba eta Gerard Morales (8:18:53) eta Gemma Arenas (9:17:35) gailendu ziren. Nafarroako selekzioa lehen sailkatua Xabier Zarranz izan zen (9:11:47, 21.a).

Duatloia

Gomez seigarrena II. Ultzamako Duatloian

Sakandarrak II. Ultzamako Duatloian:

1.	Ibai Alba	57:52
6.	Francisco Javier Gomez	1:00:41
14.	Gorka Garcia de Eulate	1:02:59
15.	Javier Borrega	1:03:03
21.	Ivan Sobredo	1:05:01
27.	Jorge Iradi	1:06:50

Benjaminetan Ekain Imaz eta haurren mailan Iker Mintegi izan ziren txapelak

Larunbatean II. Ultzamako Duatloia jokatu zen Larrintzarren (4,7 km korrikan, 21 km bizikletan eta 2,3 km korrikan). 84 duatletek osatu zuten proba eta Ibai Alba (57:52) eta Elisa Gonzalez (1:09:59) izan ziren txapelak. Sakana Triatloi Taldeko bost duatletek osatu zuten proba eta azkarrena Francisco Javier Gomez izan zen. Gomez seigarrena izan zen helmugan (1:00:41).

NKJ: IMAZ ETA MINTEGI TXAPELDUN

Goizean kategoriatxikikoak lehiatu ziren Nafar Kirol Jolasetarako baliagarria zen II. Ultzamako Duatloian eta Sakana Triatloi Taldeko neska-mutilak bikain aritu ziren. Benjaminen mailan Ekain Imaz izan zen txapelak eta Alain Razkin ere podiumera igo zen, hirugarrena sailkatu baitzen. Kimuen nesken mailan Nahia Imaz seigarrena sailkatu zen eta kimuen mutilen mailan, aldiz, Hegoi Lakuntza hirugarrena sailkatu zen eta podiumera igo zen. Bukatzeko, haurren mailan Iker Mintegi izan zen txapelak.

Aizkora

Resano Urrezko Aizkorako Buruz Burukoan aurrera

Goizeder Beltza bidean geratu zen

Asteburuan Urrezko Aizkorako Buruz Buruko kanporaketa jokatu zen Zegaman. Zortzi aizkolarik lehiatu ziren. A multzoan Hermenegildo Herrero segoviarra, Goizeder Beltza etxarriarra, Julen Aranberri "Elo-rriaga II.a" eta Xabier Zaldia. Eta B multzoan Iban Resano dorrobarra, Alvaro Garcia, Jokin Alkizaletze II.a eta Aitor Urteaga.

Multzo bakoitzean 60 ontzako bi enbor erdibitu behar zituzten aizkolariek. Eta bi onenek finala jokatu zuten. A multzoko finalean, 45 ontzako, zutik eta 60 ontzako bi enbor mozteko lanetan Xabier Zaldia izan zen azkarrena (8:37), Goizeder Beltzari ia minutu bat ateraz (9:25). Eta B mailako finalerako Iban Resano eta Jokin Alkizaletze II.a sailkatu ziren. Iban Resano nagusitu zen (9:51), Jokin Alkizaletze II.a alde ederra aterata (12:38). Hortaz, Iban Resano eta Xabier Zaldia sailkatu dira Urrezko Aizkorako Buruz Buruko bigarren faserako.

Futbola

PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

26. JARDUNALDIA

ETXARRI ARANATZ 1 - LAGUN ARTEA 0
Derbia jarraitzen zale asko hurbildu ziren. Lehen zatian Etxarrik dominatu zuen. 9. minutuan Xabatek gola sartu zuen, Etxarriren jokaldi ederra borobilduz. Bigarren zatian bi taldeak paretsu ibili ziren. Biek izan zuten markatzeko aukera, baina ez zituzten jokaldiak borobildu. Gainera, euriak partida gogortu zuen. Bi taldeen portaera eta kiroltasuna nabarmentzeko izan zen. Bestalde, elurragatik atzeratutako partidak jokatu ziren Aste Santuan. Etxarrik 1 eta 3 galdu zuen, Burladesen kontra, eta Lagun Arteak 2 eta 0 irabazi zion San Jorgeri.

Sailkapena >>

1.	Gares	54 p
4.	Etxarri Aranatz	46 p
6.	Lagun Artea	41 p

Hurrengo jardunaldia

AURRERA - ETXARRI ARANATZ
(Larunbatean, 16:30etan, Leitzan)
LAGUN ARTEA - AIBARES
(Igandean, 17:00etan, Lakuntzan)

ERREGIONAL MAILA. 3. multzoa

26. JARDUNALDIA

ALTSASU 1 - AMIGO 2
Lehen zatian Altsasuk partida ona egin zuen. Gol jokaldi ederrak sortu zituen eta horietako batean gola sartu zuen Estebanek. Baina 2. zatian dominatzen pasatu ziren Amigokoak. Hasieran ongi eutsi zuen Altsasuk, baina berdintzea eta azken unean garaipenaren gola sartzea lortu zuen Amigok. Bestalde, elurragatik atzeratutako partidak jokatu zuten Altsasuk Salesianoson kontra eta 1 eta 2 galdu zuten altsasuarrek.

Sailkapena >>

1.	Doneztebe	68 p
10.	Altsasu	28 p

Hurrengo jardunaldia

DONEZTEBE - ALTSASU
(Larunbatean, 17:00etan, Donezteben)

ELOMENDIKO TXAPELKETA

2. FASEKO A MULTZOAN. 13. JARDUNALDIA

APOLO 0 - EGIARRETA 4
BERIAIN 2 - ZALDUA 0

Sailkapena >>

1.	Bar Mikel	31 p
2.	Egiarreta	24 p
5.	Zaldia	16 p

Asteburuko jardunaldia

EGIARRETA - RINCON DE IR.
ZALDUA - ENERIZ

Futbola

Sakanako Futbol 8 Topaketak bueltan

Neguko atsedenaldiraren ondoren igandean 12. jardunaldia jokatuko da Altsasan

Ilbeltzaren 31tik atsedenaldira izan eta gero, asteburu honetan itzuliko dira Sakanako Futbol 8 Topaketak. Zehazki, topaketen 12. jardunaldia izanen da igandean jokoan egonen dena.

Sakanako Kimuen Futbol 8 Topaketak Sakanako Mankomunitateak antolatzen ditu. Helburua futbolearen aritzen diren Sakanako kimuen mailako neska-mutikoei lehiaketa batean aritzeko aukera ematea da.

12. jardunaldia (Igandean, Dantzalekun)

Altsasun

11:00etan: Mediolanum - Tipi Tapa

11:00etan: Kaixo - Etxarri Aranatz

12:00etan: Dantzaleku - Kaixo

11:00etan: Sayas - Sutegi

Atsedenean: Urdiain

Automobilismoa

Garikoitz Flores laugarrena X. Opakuako Igoeran

Sakandarrak X. Opakuako Igoeran

1.	Aitor Zabaleta (Lola BMW)	2:22.585
4.	Garikoitz Flores (BRC B 49)	2:28.392
18.	Iban Lopez (R5 GT Turbo)	2:54.841
27.	Iker Palacios (Speed Car GT 1000)	3:04.567
29.	Mikel Mendinueta (Peugeot 205 GT)	3:09.350

Larunbatean X. Opakuako Igoeran bildu ziren autozaleak. 50 pilotuk osatu zuten proba eta 6k ezin izan zuten igoera despeditu. Opakuako maldetan azkarrena Lola BMW autoa gidatzen zuen Aitor Zabaleta izan zen (2:22.585). 4 segundo ateraz zirkuitu R34 Plusa gidatzen zuen Ioseba Iraolari (2:26.437) eta 5 segundo Silver Car S2a zeraman Arkaitz Ordokiri (2:27.246). BRC B49 barketa gidatzen zuen Garikoitz Flores lakuntzarra laugarrena sailkatu zen (2:28.392). Gaiantzeko pilotu sakandarrak ere lan ederra egin zuten.

Motoziklismoa



Fernando Urra lehena Los Arcosen

Zona Norte Supermotard Txapelketako lehen jardunaldia jokatu zen Nafarroako Zirkuituan

Fernando Urra olaztiarrak bikain ekin dio denboraldiari. Asteburuan Zona Norte Supermotard Txapelketako lehen jardunaldia hartu zuen Los Arcosoko Nafarroako Zirkuituan. Lehen postuan ateratzea lortu zuen olaztiarrak, saio lehiatuan. Lehendabiziko mangan ez zuen irteera ona egin eta hirugarren postuan despeditu zuen saioa Urrak. Aldiz, bigarren saioan hasiera bikaina egin zuen eta lehen postuan jartzea lortu zuen olaztiarrak, lasterketa

lehen postuan despeditu arte. Horrela, bi tandetako puntuak batu eta gero, podiumaren gorenera igo zen Los Arcosen.

Bestalde, Migel Angel Perez olaztiarrak ere Los Arcosoko lasterketan parte hartu zuen. Lehen saioan seigarrena sailkatu zen eta bigarren saioan hirugarrena. Hortaz, sailkapen orokorrean laugarren postua lortu zuen Perezek.

Aurki Kataluniako eta Espainiako Txapelketak hasiko dira eta aurtun bertan aritzeko aukera izango du Fernando Urrak, Ramos Industrial enpresei eta beste hainbat babesleei esker.

Botxa



Behean, Irurtzun Gazteak. UTZITAKOIA

Irurtzun Gazteak, Nafarroako hirugarrenak

Nafarroako Botxa Txapelketan hirugarrenak sailkatu dira irurtzundarrak

Petanka antzeko joko tradizionala da botxa, Irurtzuno Iratxo elkarrean gogoz jokatu eta sustatzen dutena. Hain zuzen ere, Irurtzuno hiru taldek hartu zuten parte azaroaren 14an hasi zen Nafarroako Botxa Txapelketan: Irurtzun Gazteak, Irurtzun 1 eta Irurtzun 3. Aipatu txapelketan guztira 19 talde lehiatu ziren, orain arteko kopuru handiena, giro bikainean.

Asteburuan txapelketako finalak jokatu ziren Berriozarren. Irurtzun Gazteak taldea -Iñigo Carballo, Xabier Agustino eta Guillermo Juango- 3. eta 4. postua erabakitzeke finalean aritu zen eta 20 eta 18 irabazi zion Amaia taldeari -Paco, Cristobal eta Dani-. Zalantzarik gabe, txapelketa ikusgarria egin dute Irurtzun taldekoek. Txapelketari dagokionez Txantreako Txustak -Txus, Rufles eta Vidal- izan dira txapel-dunak, Amaia taldeari -Felix, Jose Mari eta Sarda- final ikusgarrian 20 eta 14 irabazi ondoren.

Areto futbola

Goitik behera egin zuten Magna Gurpeak

Gaur Antequera du arerio, 20:30ean, Anaitasuna pabilioian

Kataluniatik poltsikoak hutsik itzuli ziren Magna Gurpea Xotako jokalariek, Santa Colomak 4 eta 2 irabazi baitzion Imanol Arregiren taldeari. Magna Gurpea ongi hasi zen, baina goitik behera egin zuten talde berdeak eta defentsa akatsengatik eta punteria faltengatik 3 puntuak ihes egiten utzi zituen.

Imanol Arregi onartu zuen bere taldeak partida txarra egin zuela. "Ongi hasi gara baina gaizki bukatu dugu, oso nahasita. Akaso kontrolatu ezin dugun dinamika negatibo batean sartu gara. Hau gertatzen denean, zure jokoan konfiantza izan behar duzu, emaitzei buelta emateko" azaldu zuten teknikariak.

GAUR ANTEQUERA ARERIO IRUÑEAN

Lehen mailako areto futboleko lidera Inter Movistar da (74 puntu). Magna Gurpea Xota seigarren postura jaitzi da (44 puntu). Ostiralean Magna Gurpeak sailkapenean azken den UMA Antequera taldea hartuko du, Anaitasuna pabilioian.

Mendia

521 mendizale Hiru Mendi Zerretan

Eguraldia lagun, bikain joan zen Urbasa, Altzania eta Aralar mendi zerrak lotu zituen mendibilbide ez lehiakorra, Nafarroako egutegia mustu zuena

Kontentu zeuden Altsasuko Mendigoizaleak taldekoak. Larunbatean eguraldiak bat egin nahi izan zuten 9. Hiru Mendi Zerrak mendibilbidearekin eta gure mendiez gozatzeko aukera probestu zuten Altsasun agertu ziren 521 mendizaleak. Bi aukera zituzten: ohiko ibilbidea, 48 km-koa, edo ibilbide laburra, 26 km-koa. Gehienek lehendabiziko aukeraren alde egin zuten. Altsasuko mendibilbideak Nafarroako Iraupen Luzeko Mendi Ibilaldien IX. Txapelketa mustu zuen eta, aldi berean, Euskal Herriko Mendi Ibilbide Luzeen Zirkuiturako baliagarria zen. Altsasuko Mendigoizaleak taldeak antolatu zuen Hiru Mendi Zerrak mendibilbide ez lehiakorra, Dantzaleku Sakana klubaren laguntzarekin.

Mendizaleak goizeko 7:00etan atera ziren Altsasuko Foru Plazatik. Urdiainera jo zuten, Portuazpitik Urbasara igotzeko. Handik Bargagainera iritsi ziren (1.153 m) eta Gainsolerantz egin

zuten, gero Ziordira jaisteko. Ibilbide motza hautatu zutenek Ziorditik Altsasura jo zuten, partzelarietatik. Aldiz, ibilbide luzekoek Altzaniako mendi zerrara jo zuten, Kipular (1.059 m) igo eta Orobe eta Sorozarretara jaisteko. Handik Balankalekura igo ziren (983 m) eta Intxusbururantz jarraitu zuten (946 m), Aralarren. Handik jaitzierari ekin zioten, Sarabetik eta San Pedrotik barna Altsasura iritsiz. Eguraldi bikainari esker ikuspegi bikainetaz gozatu zuten mendizaleek eta ibilbidearen eta parajeen "eder-tasuna" nabarmendu zuten guztiek. Horretaz gain, antolakuntza-errendako loreak izan zituzten. Izan ere, besteak beste, famatuak egin dira Hiru Mendi Zerretan eskaintzen diren hamaiketakoak. Ohiko edari eta janariez gain, aurtentziordiko hornidura puntuatua basurdea dastatu ahal izan zen eta Saraben, Urdiaingo igerilekuen ondoan, magrak tomatearekin. "Aurreko edizioetan magrak Balankalekuko igoera baino lehen eskaintzen ziren, baina mendizaleek egindako proposamenak aintzat hartuta aurtentzi



Mendizaleak gure paraje bikainetatik barna ibili ziren.

igoeraren ondoren eman ditugu, Saraben, eta gustatu zaie, hobeto iruditu zaie" azaldu dute antolakuntzatik.

Martxamotza hautatu zutenek goizeko 10:00etatik aurrera hasi ziren Altsasuko Foru Plazara iristen, eta martxa luzea hautatu zutenek, aldiz, eguerditik aurrera. Batzuk korrika egin zuten ibilbidea, eta gehienek oinez. Altsasu-

ko Mendigoizaleak taldeko Javier Zelaiak azaldu zuenez, "guztia bikain joan da, ez da aparteko arazorik gertatu". Guztia antolatzeke 50 pertsona inguru aritu ziren lanean eta antolakuntzatik nabarmendu zutenek, aurtentziordiko ez dituz ibilbidea markatzeko zintak kendu, aurreko edizio batzuetan gertatu den bezala, eta alde horretatik ere kontentu zeuden.

Automobilismoa / 4x4

Gozamena Sakana 4x4 Topaketan

34 ibilgailuk hartu zuten parte eta Plasma 4x4ko Jorge izan zen txapelduna

Larunbatean eta igandean jendetza pasatu zen Arbizuko industrialdetik. Sakana 4x4 Topaketa jokatu zen, urtetik urtera sona handiagoa lortzen ari den ekitaldia. "Aurtentzi 34 pilotuk hartu dute parte, gehienak euskaldunak, baina baita Leondik ere etorriak. Sakandarrei dagokienez, Dorraoko Jon, Arbizuko Mikel "Ixela" eta probako emakume bakarra, Altsasuko Bego izan ditugu. 34 pilotu hauek sekulako ikuskizuna eskaini zuten eta zaleek bikain pasa zutela, hori da garrantzitsua" adierazi digu Sakana 4x4ko Jose Luis Lakuntza "Rixitas"-ek.

Larunbatean Arbizuko industrialdean prestatutako zirkuitutik 2.500 zale inguru pasa ziren eta igandean ere jendetza hurbildu zen. 7 gune prestatu zituzten, larunbatean alde batetik bestera gainditu beharrekoak eta igandean, kontrako norabidean. "Ostegunean botatuko euria zela eta, lohia, putzuak eta zuloak nonahi zeuden. Todoterrenoan maniobrak ikusgarriak izan ziren; gozatu ederra hartu zuten pilotuek" aipatu du Sakana 4x4ko kideak. Bestalde, larunbat gauean jokatu beharreko gaueko proba bertan behera utzi behar izan zuten, eremua argiztatzeke generadoreak matxuratu egin zirelako eta segurtasunagatik.



Azken eguneko euriengatik lohiez eta oztzopoz beteta zegoen ibilbidea. UTZITAKOIA

Emakume altsasuarra

Probari dagokionez, Plasma 4x4ko Jorge gasteiztarra izan zen irabazlea. Dorraoko Jon bosgarrena sailkatu zen, Mikel Ixela hamabosgarrena eta Bego altsasuarrari sari berezia eman zioten, proban aritu zuten lehen emakumea izan zelako. "Pilotuak ikusgarri aritu ziren eta jendea gustura geratu zen" nabarmendu du Rixitasek. Bestalde, txoko eta ingurune guztiak lehen zeuden bezala uzteko lan handia egin zutela gaineratu du. "Maiatzaren 14an Astigarragan proba dugu, ekainaren 4an Oiarzunen, eta Arbizuko festetan ere proba antolatuko dugu, ekainaren 25ean, larunbatean ziuurrenik" adierazi digu Rixitasek.

BIKAIN
GARAJEA, S.A.L.
948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA

Mekanika Elektrizitatea Txapa Margotzea

Asteburu gauetarako
Menu berriak
Ostiral eta larunbata gauetan

San Kiriko
MENUA 29€

San Adrian
MENUA 35€

Borda Egin zure erreserba!
948 46 05 45 www.bordajatetxea.com

Abizen faltsuen musika

Larunbatean, 20:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean Haize Berriak bandaren kontzertua

Ocho apellidos vascos eta Ocho apellidos catalanes ezagunen ondoren Ocho apellidos falsos heldu da Iortia kultur gunera. Aurreneko biak filmak baziren, azkena Sakanako musika bandaren ikuskizuna da. Aitzakia gisa bandak zortzi musikariren abizenak hartu ditu: Gustav Holst, Ferrer Ferran, Llano, Dizzy Stradford, Robert Finn, Michael Van Delft, Ted Huggens eta Rita Defoort.

Ogasunari ordaintzea eragoz-

teko, beste konpainia batekin hitzarmena zutelako... hainbat arrazoi-rengatik sortzaile horiek gerora oso ezagunak egin diren piezak beste abizen batzuekin sinatu zituzten. Pieza bakoitzaren aurretik beharrezko azalpenak Luis Orduña zuzendariak emanen ditu.

Zortzi konposizio osatzen dute kontzertua. Orokorrean emanaldi bizia izanen da, mota guztietako musika erritmoak dituenak: klasikoa, folklorea, pasodoblea... Inauterien ondoren hasi zen prestatzen Haize Berriak banda emankizuna. Altsasuko biharko kontzertuaren ondoren, egitarau berarekin Leri-na joan dira apirilaren akaberan.



Euskarazko zinema Irurtzunen

Irurtzunen *Amama* euskal film arrakastatsua ikusteko aukera izanen da asteburuan: gaur eta igandean, 20:00etan, kultur etxean. Baserri batean bizi den familia bateko kideen belaunaldi arteko talka islatzen du filmak. Horretaz aparte, haurrentako film emanaldia izanen da igandean, 18:00etan.

4nek Olaztin

Gaur, 22:30ean, Olatzagutiako Barandi tabernan

Juanpa Agirrek (ahotsa), Joseba San Sebastianek (baxua), Imanol Goikoetxeak (gitarra), Xabi Zubeldiak (teklatuak) eta Juanma Urrizak, Bolik, (bateria) osatzen dute 4nek (launek) taldea. Eskarmentu handiko boskoteak pop-rock estiloko doinuak sortu ditu eta azaroaz geroztik jendarean aurkezten ari dira kantu horiek.

Europako musikan barnako 1000 urteko bidaiak

Larunbatean, 19:00etan, Arbizuko Kanpineko Amari yoga magiko gunean

Maite Itoiz sopranoak eta John Kellyk *Historical* kontzertua eskainiko dute bihar. Itoizen ahotsa harpa zeltaren, errenazimenduko lautearen, txirulen eta perkusioaren doinuek lagunduko diote. Bikoteak Erdi Arotik gaur egunera arteko Europako musika egitaraua eskainiko du, herri musikako eta eurek sortutako piezak tartekatuz. *Historical* emanaldiekin Itoizek eta Kellyk kritika onak jasotuzte Alemanian. Nafarroan behin eman dute egitarau hori eta arra-



kasta errepikatu egin zuten. Arbizukoaren ondoren, bikoteak Kanadara eramanen du *Historical* emankizuna. Beste hainbat musi-

karirekin batera Alan Simonen *Excabur* rock-operaren makina bat emanaldirekin itxiko dute urtea.

Errenazimenduko musikarekin hasi, barrokoarekin segi eta euskal musikarekin despedituko dute emanaldia. Rikardo Bihotz Lehoi, Nafarroako Teobaldo I.a, Alfonso X.a Jakituna edo Juan de la Encinaren piezekin batera, euskal kantutegiko abesti herrikoiak edo Mikel Laboa eta beste egile batzuenak entzuteko aukera izanen da. Sarrerak 630 777 130 telefonoan edo nebani9@yahoo.es e-postan lortu daitezke aurretik (15 euro), edo bihar aretoan bertan (20 euro).

Salazarren obran oinarritutako antzezlanari saria

Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Donostia Kulturak euskarazko antzerkigintza sustatzeko ahaleginaren barruan, joan den urtean 17 antzezlan programatu zituzten. Urtero ohi denez, haietako bati Donostia Antzerki Saria eman zioten. 16. edizioan Ados Teatrotan *Maitasunaren ostean*, *maitasuna* antzezlanak merezi izan du aitortza. Saria Antzerkiaren Nazioarteko Egunean, martxoaren 27an, jaso zuten Victoria Eugenia Antzokian. Saritutako antzezlanak Garbi Losadak idatzi eta zuzendu du, Dora Salazarren iruditerian oinarrituta.



Helena Taberna Vianako Printzea sarirako hautagaien artean

Nafarroako Gobernuak deitutako Kulturako Vianako Printzea sariaren XVIII. ediziorako bederatzita hautagaitza erregistratu dira. Horien artean dago Helena Taberna zinemagile altsasuarra, Nafarroako Kultura Kontseiluko kideek proposatuta. Agustin Gonzalez Azilu konpositore altsasuarra 2009. urtean jaso zuen sari hori.

bazterretik

Iosu Lizarraga

Aplikazioen munduan nabigatzen V: Mugikor txinatarak

Kaixo irakurle maiteak; gaurkoan zerbait ezberdina ekartzea iruditu zait. Azkenaldi honetan mugikor berri bat erosteko jende pila galdetza dator kit. Nik, mundu honetan aditu bat naizenez, txinatar mundua gomendatzen dut beti. Txinatik datozen mugikoren salmenta egunero handiagotzen ari da. Egia esan, hemengoekin alderatuz, prezio askoz murriztuagoak dituzte eta hori oso erakarria

da gure poltsikoendako. Txinatik erosteko denda elektronikoa asko agertu dira azkenaldi honetan. Honen abantailak eta desabantailak ikusiko ditugu. Normalean mugikor txinatarak munduan barna saltzen ez direnez, denda bitartekariak heldu beharko diegu erosketa egiteko. Gomendagarria da dendarekin kontaktuan jartzea, mugikorra "stock"-ean dagoen alaez jakiteko, askotan weborriak dataz kanpo baitaude. Hemen duzue denda fidagarri eta gomendagarrien zerrenda bat: Pandawill, Igogo, Android sale, Aliex-

press, Ibuygou, Fulcrum eta Fast-CardTech. Bidaltzeko metodo eraginkor eta seguruena, arazorik gabe ailegatzeko eta aduanak gaintzeko, posta arruntez bidaltzea da. Honen eragozpen bakarra denbora da, normalean hilabete bat inguru irauten baitu. Mezularitza zerbitzu espezializatuak aukeratzen badituzu, zortzi egun inguruan zure mugikorra izango duzu zure eskutik, baino aduanekin arazoak izan ahal dituzu. Aduanak nola gaintu? Normalean funtzionatzen duten bi aukera: pake-

teaopari bat bezala bilduta bidali, edo 60€ baino gutxiagoko faktura faltsua bidali-nire kasuan, 300€ko mugikor batean, 34,86€ko "konponketa elektronikoa" baten faktura bidali zidaten. Esan beharrezkoa da, baita ere, eragozpen handienetarikoa bat, normalean bakarrik urte bateko garantia duzula dela. Gainera konponketa egiteko, Txinara bueltan bidali beharko duzu, bidalketa gastuak zure kargu. Azkenean, bidalketa, konponketa eta bueltarekin, bizpahiru hilabete inguru pasatzea normala da. Bestalde, gutxitan baino gertatu den gauza bat aipatzekoa da: mugikor

faltsifikatuak bidaltzea, txinatarak klonazioan adituak dira eta (Xiaomi M2 faltsuen kasu famatua izan zen duela bi urte inguru). Bukatzeko, mugikor txinatar bat erosteko faktore garrantzitsuenak, kalitate/prezio harremanada. Harreman hau zaintzen duten marka txinatarren lista bat utziko dizuet, hobereenetik hasita: Xiaomi, OnePlus, Oppo eta Meizu. Mugikorrez aldatzea pentsatuta baduzue, kendu beldurra eta ausartu Txina munduan dauden aukerak erostera. Aste on bat pasa ezazue, eta hurrenera arte!

Bada euskaraz zer irakurri, zerekin gozatu eta zer oparitu

IGO, euskarazko irakurzaletasuna bulkatzeko kanpaina, bi hilabetez indarrean izanen da

Irakurri, Gozatu eta Oparitu (IGO) egitasmoak 10. edizioa du aurtengoa. Euskaltzaleen Topaguneak antolatu eta Sakanako Mankomunitatearen babesa jasotzen duen egitasmoan Irurtzango, Lakuntzako, Arbizuko, Etxarri Aranazko, Urdiaingo, Altsasuko, Olatzagutiako eta Zoridiko liburutegiek parte hartzen dute. Ostiralean jarri zen martxan eta maiatzaren 31ra bitartean iraunen du. Ekimenak herritarrek euskarazko liburuak irakurtzera animatu nahi ditu, irakurtzearen alde atsegina azpimarratuz eta liburutegi publikoen erabilera sustatuz.

Aurreko bederatzia edizioetan frogatu denez, kanpainak eragin positiboa izaten du herritarrek herriko liburutegian egiten duten



euskarazko liburu maileguan. Era berean, ekimenak liburu salmentan izaten duen eragina kontuan hartzekoa da. Egitasmoak honako argitaletxeen laguntza izaten du: Erein, Elkar, Ibaizabal, Pamiela, Txalaparta eta Susa. Ekimena 50 herritan garatzen da.

Berrikuntza

Berrikuntzarik garrantzitsuen Patxi Zubizarreta idazleak gomendatutako 50 liburu zerrenda da. 5 adin tartetan euskarazko literaturarekin gozatzeko proposamenak egin ditu idazleak.

3 pauso

1. Irakurri. Liburutegira joan, eta euskarazko edozein liburu maileguan eskatu.

2. Gozatu. Liburu irakurri, liburutegira bueltatu, eta fitxa bat bete beharko duzu. Fitxa hori beteta, liburutegiko arduradunak erosketa-txekea emango dizu, Sakanako liburu-denda hauetan erabiltzeko: Martxuetan, Kaxeta, Arkatzedo Liburunda. Euskarazko beste edozein liburuaren erosketan %35eko beharpena izango duzu. Erosketa-txekeak liburu dendan erabiltzeko epea ekainaren 11 artekoa izanen da.

3. Opari egin. Liburu oparitu: lagun bati, senide bati, edo norbere buruari.

Zozketa

IGO egitasmoan hileroko parte hartzen dutenen artean 30 euroko erosketa-txekea zozketatuko da liburutegian.

Ikasitakoarekin egindako erakusketa

Argazkiak moldatzeko ikastaroan sortutako 60 lan ikusgai daude Altsasuko Iortia kultur gunean; apirilaren 18ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara

Altsasuko Udalaren Gazteria Sailak ikasturte honetarako antolatu dituen artean dago argazkiak eszenaratzeko eta ukituak emateko argazki-ikastaroa. 12 eta 55 urte bitarteko 15



lagun daude ikastaroan (hiru dira, 30 urte baino gehiagokoak). Guztiak Kiki Asensio eta Olga Medinaren esanetara trebatu dira argazkiak egiten eta haiek moldatzen. Ikastaroaren aurreneko hiru-hilekoan sortu zituzten argazki guztiak 30 aukeratu dituzte. Bigarren hiru-hilekoa apirilean despidituko da eta aldi horretako beste 30 argazki atzotik Iortia kultur gunean ikusgai daude.

Herri dantzen tailerra Olatzagutian

Apirilaren 14ra arte eman daiteke izena udaletxean, 10:00etatik 14:00etara

Olatzagutiako Udaleko Kultura Sailak jota, arin-arina eta porrusalda herri dantzak ikasteko tailerrak antolatu ditu. Bi hain zuzen. Eta bien helburua hainbat belaunaldiako olaztiarrek dantza horiekin ikastea da. Lehen taldea 7 eta 11 urte bitarteko neska-mutilei zuzenduta dago (2005 eta 2009 urteen artean jaioak, biak barne). Haurrek, pertsona heldu batekin izena eman behar dute eta biek joan beharko dute dantza tailerrera. Bikoteak 25 euroko matrikula ordaindu beharko du. Bi haur eta heldu bat badoaz, 35. Bigarren taldean 12 urtetik gora duten eta interesa duten olaztiar guztiek eman dezakete izena (15



euroko matrikula).

Tailerra larunbatetan eman da, zazpi saiotan: apirilaren 16an, 23an eta 30ean eta maiatzaren 7an, 14an, 21ean eta 28an. Sutegiko gimnasioak hartuko du herri dantzen tailerra, 16:30etik 18:30era. Tailerrak aurrera egiteko gutxienez dozena batek eman beharko dute

izena eta gehienez, 26k. Olaztin erroldatutakoek izanen dute lehen-tasuna. Tarifak ordaintzetik salbuetsirik egonen dira diruz urri dabilzala frogatzen dutenak; aldez aurretik espresuki eskaria egin beharko diote udalari, Oinarriko Gizarte Zerbitzuak emandako txostena baliatuta.

Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa, Altsasun

Bertso boladak segitzen du. Nafarroako Taldekako Bertso Ekimenaren, Bardoak 2016ren, finala Etxarri Aranatzeko jokatu zen martxoaren 19an. Hilabete pasa ez denan, Sakanako herrialdeko bertsolarietako beste jardura bat hartuko du: Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa. Apirilaren 15ean izanen da, ostiralean, 18:30ean Altsasuko Itsasi euskaltegian. 14 eta 18 urte arteko zazpi bertsolari parte hartuko dute. Haietatik bost sakandarrak.



Non erabili

KIKI ARGAZKI DENDA

ALTSASU

15x20 cm-ko 8 argazkiko erreportaje batean beste bi argazki opari.

TANIA ARRAINDEGIA

LAKUNTZA

50 €ko gastuarekin, etxe-ko produktua doan.

LAKUNTZAKO OSTATUA

LAKUNTZA

Menuarekin, kafea edo kopa doan.

ZURE EKO DENDA

IRURTZUN

€10eko deskontua kontsulta terapeutikoetan.

HOTEL OLATZEA

ARBIZU

Eguneko menuarekin, kafea doan, menu bereziarekin, txupittoa doan.

ETXARRI HORTZ KLINIKA

ETXARRI ARANATZ

%10eko deskontua garbiketetan.

LURESU

ALTSASU

%10eko deskontua eskaintza berezi eta enkarguetan izan ezik.

NORTE ERLOJUDENDA

ALTSASU

%7ko deskontua produktu berrietan, konponketetan eta aldaketetan salbu.

MENDIGAIN URDEIAZPIKOAK

LAKUNTZA

50 €ko erosketa eginez gero etxe-ko produktua opari.

URREZKOA BITXIDENDA

IRURTZUN

Bitxietan 100 €ko erosketa egitean, %10eko deskontua.

www.guaixe.eus-en zerrenda osoa ikusgai



BAZKIDETZA 50€
948 564 275

G

asteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 95%	euria: 63%	euria: 13%	euria: 15%	euria: 15%	euria: 28%	euria: 15%	euria: 15%
Min: 2 Max: 8	Min: 3 Max: 8	Min: 4 Max: 16	Min: 5 Max: 14	Min: 7 Max: 15	Min: 7 Max: 14	Min: 6 Max: 16	

: temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	18	-0.5	59.1
Etxarri A.	16.7	-2.2	60.5
Altsasu	15	-1.5	61.2
Aralar	8.9	-2.7	33
Urbasa	13.5	-4	60.5

: ilargiaren aldia>>

	ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
	14	22	30	6

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti
ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Bazkide sarituak

- 1.- **Maidor Larrea** (Altsasu)
- 2.- **Isabel Gonzalez** (Altsasu)
- 3.- **Izaskun Vicente** (Sarriguren)
- 4.- **Mila Razkin** (Etxarri Aranatz)

>> 11 galdera

Aintzane Lizarraga, Andoni Zilbeti eta Ainhoa Lizarraga

Motxila 21 musika taldeko kideak

Testua: Larraitz Amadoz Lazkano



NOR GARA KONTAKTUA

gk

KOMUNIKAZIOA

Foru plaza, 23-1. Altsasu | 948 564 275 | 948 562 107
gk@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus

1. Noiz sortu zen Motxila 21?
Ainhoa Lizarraga: Orain dela hamaika urte, 2005. urtean. Down elkartean Mari Jose, musika taldeko kide Borjaren ama, eta ni askotan elkaritzen ginen. Neska-mutiko hauek musikako klaseak izaten zituzten, baina talde moduan ez zuten lantzen, eta ideia horretatik abiatu ginen. Mikel Barrenetxearekin harremanetan jarri ginen hark perkusio ezagutzak zituelako. Pixmapakana, instrumentu gehiago sartu genituen eta jende gehiago, taldea, forma hartuz joan zen, alegia.

2. Nola osatu duzue musika banda?
Andoni Zilbeti: Hasieran batera bat zatika sortu genuen, bonboa alde batetik, tinbalak beste batetik, eta gero kaxak. Instrumentu hauek landu egin genituen erritmo oinarria lortu genuen arte. Horren gainean melodiak sartu genituen eta, hori dena uztartuz *Zaratrusta* abestia egin genuen. Baxua, gitarra eta akordeoia sartu genituen, eta Queenen *We will rock you* abestia egin genuen.
Aal: Lehenengo urte hartan, abesti batekin egin genuen lehen kontzertua, *Zaratrustarekin*, Down elkarteko eguberriko festan. Izugarria izan zen guretako.
Aintzane Lizarraga: Taldean hiru saxofoi-jole gara. Guk notak koloreekin irakurtzen ditugu, nota bakoitza guretako kolore bat da. Abestiaren erritmoa segitzeko bi pertsonak laguntzen digute.

3. Askok aldatu al da taldea hamaika urte hauetan?
AZ: Taldekide guztiak nafarrak

gara. Hasiera batean, Ainhoa Iruستا, gero Miriam Razkin Dorraokoa, El Drogas, Piñitas, horren ondoren Gabri etorri zen, gaur egun baxua den Xabi, Pollito, Bidarte saxofoia jotzen, Joxe Landa sartu zen baita ere, Marea taldeko Kutxi ere kolaboratzen ibili da. Osotara, bandaren izenak dioen bezala, 21 gara.

4. Noiz entseatzan duzue?
Aal: Astearte guztietan denok elkar-tzengara, 19:00etan. Aurretik boluntarioak abesti berriak ateratzen egoten gara, 17:00etan. Jende asko dagoenean dena pixka bat kaotikoa bihurtzen da, baina 11 urte hauetan guk aurrera jarraitzen dugu, gustura, ilusio handia dugulako.

5. Momenturik berezienak kontzertuak al dira?
AZ: Noski, talde guztientzat bezala; motibazio gehien ematen duena kontzertua da.
Aal: Orain dela bi urte Gabirekin kontua egin genuen, eta 50 kontzertuzen bat egin genituen. Azken bi urte hauek gehituz, 75 bat kontzertu emanen genituen osotara. Sakanan, Dorraon eta Altsasun egon gara, eta aurreko garagarrilean Etxarri Aranatzan izanen gara.

6. Modu berezian gogoratzen duzuen kontzerturik?
Aal: Niri sentsazio berezia sentiari zidankontzertua Gaiarren emandakoa izan zen, 2009an. Gure lehen-dabiziko kontzertu handia izan zen.

7. Asteburu honetan Altsasuko lortia kultur gunean Motxila 21, live, zuzenean, en vivo! eskainiko

8a. Noiz sortu zen egitasmo hau?
Aal: Dokumentala Iñaki Alforjak egin du; berea izan zen ideia. 2013ko agorrilean Londonera bidaiatzeko aukera izan genuen, eta bidaiari ardatz hartuz egin du.

8. Nola sortu zen Londonera bidaiatzeko aukera?
AZ: Ingalaterran, Autistix talde adago. Taldeko kide bat eta bere gurasoak Getariara oporretara etortzen ziren, eta Motxila 21en berri izan zuten. Gurekin harremanetan jarri ziren eta elkar-truke bat egin genuen. 2013ko maiatzean Autistix taldea etorri zen eta hainbat kontzertu elkarrekin egin genituen.

9. Londoneko bidaiak, nolakoak?
AZ: Oso polita izan zen, esperientzia aberasgarria, baina aldi berean oso neketsua, ia egunero kontzertuak genituelako. Autistix eta Motxila 21 taldeen arteko harremana oso berezia izan zen. Ez dute hizkuntza berdina erabiltzen, eta hala ere oso ongi konpondu ziren.

10. Noiz izan zenuten dokumentalaren estreinaldia?
Aal: 2015eko abenduan, Golem zinemetan. Asteburu honetan Altsasun egon dena, eta Madrilen ere izanen da aukera dokumentala ikusteko.

11. Ze nolako harrera izan du?
Aal: Jendeari asko gustatu zaio. Down sindromea duten 12 neska-mutil hauek dira dokumentalaren protagonistak, beraien ilusioa, zer sentitzen duten... Gaur Iñaki Alforja eta taldea Altsasun izanen dira. +www.guaixe.eus